

Tokiko erakundeetan

ZAINZA-LANAK FEMINISMOTIK DEMOKRATIZATZEKO

GIDA



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

2030 

Tokiko erakundeetan

ZAINZA-LANAK

FEMINISMOTIK

DEMOKRATIZATZEKO

GIDA

Gida hau www.eudel.eus (argitalpenak) webgunean dago eskuragarri.

© EUDEL
eudel@eudel.eus / T. 944231500
Ercilla 13 - 48007 Bilbo
2026ko apirila
Lege gordailua: D 00321-2026

ARGITARATZAILEA: EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartea
IDAZKETA, DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Emagin Elkartea
GAZTELANIAZKO ITZULPENA: Labayru Fundazioa
INPRIMATEGIA: Leitzaran Grafikak

Aurkibidea

	Sar hitza	6. or.
0	Gida honen ezaugarriak eta helburuak	8. or.
1	Zaintza-lanak, zer dira?	10. or.
2	Zaintzen demokratizazio prozesuetarako oinarriak	14. or.
3	Zaintza erregimen atzerakoia	19. or.
4	Udalerrietan zaintza-lanak demokratizatzekeo prozesuetako premisak	22. or.
5	Zaintza-lanak demokratizatzekeo prozesuak urratsez urrats	27. or.
	5.1. Abiapuntua	28. or.
	5.2. Eraldaketa	35. or.
	5.3. Jarraipena eta balorazioa	48. or.
6	Eranskinak	52. or.
	I. Egoeraren azterketa osatzeko informazioaren erregistrorako fitxak	52. or.
	II. Esparru arauemailea	57. or.

Sar hitza

Gizartearen bilakaera demografikoak bultzatuta, zaintza eskaera gero eta handiagoa den tendingurua bizi dugu. Mendekotasun indizearen gorakadarekin batera, gizarte-aldaketa sakonak gertatzen ari dira, hala nola familia ereduaren aniztasuna edo emakumeen lan-merkatuaren progresiboa. Datuen arabera, datozen urteetan egoerak okerrera egingo du zaintzak beste modu batera antolatzen ez baditugu.

Egoera horrek zuzenean eragiten die zaintzak behar dituzten pertsonen eta zaintza horiek ematen dituztenei —gehienbat, emakumeak eta horietako asko migratuak—, eta gizarte gisa interpelatzen gaitu. Ikusmira horren aurrean, tokiko erakundeok gure gain hartzen dugu zaintza lanen antolaketa bidezkoagoa, efizienteagoa, jasangarriagoa eta egungo errealitate-ra egokitu behar dituen gizarte antolakuntza gidatzeko erronka.

Udalok, pertsonak eta komunitateak hurbil, zeregin erabakigarria dugu aldaketa-prozesuetan. Uste sendo horrekin, EUDELe gida hau bultzatu nahi du, euskal udalerriei zaintzen demokratizaziorantz aurrera egiten tokiko gizarte-eztabaida sustatzen eta gaur egun ditugun premiazko egoerei erantzuten ahalbidetuko duten prozesuak abian jartzen laguntzeko.

Gida hau zaintzen esparruan inplikaturako hainbat arlokin izandako elkarlanaren eta kontrastearen emaitza da. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu beraien ezagutzarekin, esperientziarekin eta konpromisoarekin lan hau egiten lagundu duten pertsona eta erakunde guztiei. Haien ekarpena funtsezkoa izan da udalerriei tresna erabilgarri eta eraldatzaile bat eskaintzeko.

Dokumentu honek hiru helburu nagusi ditu: lehena, zaintzak demokratizatzeko bidean jartzeko ibilbidea udalei erakustea; bigarrena, tokian toki zaintzei buruzko

gizarte eztabaida piztea, zaintzen garrantzia erdigunean jarri dadin; eta azkena, gaur egun ditugun urgentziazko egoerei irtenbidea emateko prozesuak abian jartzea.

Zuen udalerrian zaintza sistema eraldatzeko gida hau tresna praktikoa gisa erabiltzea gonbidatzen zaituztegu, eta tokiko errealitate-ra egokitu dezakezue hausnarketarako eta lankidetzarako espazio propioen bidez. Dokumentu irekia eta malgua da, eta udalerriri bakoitzean behar adina garapen izan ditzake. Eta, beti bezala, EUDEL zuen bide horretan lagun izango duzue.

Bidea erabakitasunez hasiera animatzen zaituztegu. Eraldaketa orok denbora, konpromisoa eta borondate partekatua eskatzen du, baina lehen urrats batekin hasten da beti. Abian jarri gaitzen.

Esther Apraiz Fernandez la Peña,
EUDELeko elkarteburua eta Derioko alkatea



ESKER ONAK

Udaletako arduradunak, Gizarte zerbitzu eta Berdintasun zerbitzuetako profesionalak:

Amurrio, Arabako Mendialdea, Aramaio, Arratzua - Ubarrundia, Artziniega, Audio, Legutio, Okondo, Urkabustaiz, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia, Zuia, Abanto Zierbena, Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Berriz, Bilbao, Busturialdea Derio, Elorrio, Gernika-Lumo, Gueñes, Larra-betzu, Leioa, Lezama, Loiu, Mallabia, Muskiz, Orozko, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Urduña, Zalla, Zamudio, Amezketza, Arrasate, Alto Urola, Asteasu, Astigarraga, Azkoitia, Beasain, Berastegi, Bergara, Berrobi, Donostia, Eibar, Elduain, Eskoriatza, Elgoibar, Hernani, Idiazabal, Irura, Itsasondo, Lasarte-Oria, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Lezo, Lizartza, Mutriku, Olaberria, Oñati, Ordizia, Orio, Pasaia, Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitatea, Soraluze, Urretxu, Usurbil, Zarautz, Zumaia, Zumarraga,

Pertsona laguntzaileak:

Fernando Fantova, Erkuden Ruiz, Matia Fundazioa, Matxalen Legarreta, Felix Arrieta, Amaia Perez de Orozco, Joseba Zalakain, Rafael Lopez Arostegi.

Erakundeak:

ARADIA koop., FARAPI Koop., ERROTIK koop., EDE FUNDAZIOA, ELE, Enarak koop., Servicio Sociales Integrados, Intermon Oxfam, Maitelan koop., Senideen Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Federazioak eta Fekoor Elkartea.

0.

Gida honen ezaugarriak eta helburuak

Gida honen bidez, EUDELek euskal udalei baliabideak eskaini nahi dizkie politika publikoak bultzatzeko, betiere zaintzak feminismotik demokratizatzeke asmoarekin. EAEn ere, iraupen luzeko zaintza-lanak familiei dagozkie oraindik, eta horien barruan, emakumeak dira lan-karga handiena dutenak. Gainera, gure zainketen antolaketa-egiturak ez ditu egungo gizartearen beharrak asetzen, eta horrek **premiazkoa egiten du egungo eredia eraldatzeko beharra**.

Ikuspegi eta ikuspuntu feministak agerian uzten du zainketa-sistemaren egungo antolaketak erabat kaltetzen eta baldintzatzen duela emakumeen bizitza. Emakumeak dira, nagusiki, zainketa-lanen ondorioz pobretu, prekarizatu, isolatu eta alboratzen direnak.

Gida hau ez da egun batetik bestera osatu, eta ez da gutxi batzuen iritzi eta gogoetetatik sortu. **Adituen eta udalerrien ahotsen eta esperientzien azterketa sakon** baten emaitza da, zaintzaren esparruan gertatzen ari diren bidegabekeriak eta desorekak gainditzeko nahiarekin.

2022an, EUDEL hainbat **hausnarketa-gune** garatzen hasi zen, tokiko zaintza eraldatzeko moduari buruzkoak, bai Berdinsarea-Euskal udalerrien sarearen esparruan, bai VWBasqueskola emakume hautetsien topagunean.

EUDEL ikuspegi zabalagoa eskatzen zuen proiektu batean murgildu zen: udalei babesa eskaintzea eredu erantzukiderantz aurrera egiteko. Eredu horrek **tokiko zaintza-sistemak demokratizatzea** helburu izan beharko du, betiere ikuspegi feministatik.

Azken hiru urteotan udalekin lankidetzan estuan aritu gara azterketan, hausnarketan eta sistematizazioan. 2023an mapaketa bat egin zen **153 toki-erakunderekin** (udalerrriak, mankomunitateak eta koadrilak), Euskadin zainketen arloan dauden baliabideak ezagutzeko. Gainera, udaletako esperientzia erreferenteak identifikatu eta aztertu ziren, **ibilbide komunak** aurkitzeko helburuarekin.

Araudian eta bibliografian arakatzear gain, banakako elkarrizketak egin zitzaizkien adituei, eta talde fokalak antolatu ziren eragile hauekin: **gizarte-langileekin; berdintasun-teknikariekin; etxeko langileen, kooperatiben eta sindikatuen elkarteekin; komunitatearekin lan egiten duten elkarteekin; eta zainketa-antolakuntzan** aldaketak sustatzen ari diren elkarte, kooperatiba eta fundazioekin.

Lan horri guztiari **egitura eta edukia** emateko, EUDELek Emagin elkarteak izan du bidelagun. Haren laguntza ezinbestekoa izan da hiru urteko prozesua egituratzeko eta azken emaitza gorpuzteko.

Gida hau eragileekin egindako lanaren eta prozesuaren emaitza da, 2023ko irailean hasi eta 2025eko otsailean amaitu zena, eta tokiko erakunde publikoek zaintza-lanak demokratizatze-ko egin behar dituzten eraldaketa-prozesuetan laguntzeko bokazioa du.



1.

Zaintza-lanak, zer dira?

AZKEN ALDIAN AGENDA POLITIKOAN BERE LEKUA EGIN NAHIAN DABILEN KONTZEPTUA DA ZAINITZA, BATZUEK ETA BESTEEK AHOTAN DARABILTENEA. HORREN ISLA DA, ALDE BATETIK, LEGERIA, NAZIOARTEAN ZAINITZA-LANEN ANTOLAKETA BIDE GABEA AITORTU ETA HERRIALDEEI HORIE-TAN ERAGITEKO PREMIA IKUSARAZTEKO GARATU DENA. BESTALDE, ZAINITZEN KONTZEPTUAREN HEDAPENAK ULERKERA ASKO EKARRI DITU.

Zaintzak demokratizatzeke lege-esparrua

Zabala da zaintzen eraldaketa sustatzeko marko politikoa bai nazioartean bai EAEn, eta askotarikoak dira zaintzari lotutako gomendio eta proposamenak. Hala ere, ez dira hainbeste eremu hori demokratizatzeke dauden lege eta arauak, ez badira berdintasun politiketatik bideratzen direnak. Izan ere, emakumeen bizitzetan eragin zuzena duen bidegabekeria da gaiaren muina, eta hori eraldatzeko premia aspaldikoa da.

Zaintzen aldeko Aliantza Globala (NBE, 2021)

- Giza eskubide gisa kokatzen du zaintza, ez soilik behar edo zama gisa.
- Giza garapen iraunkorrerako eta genero-berdintasunerako gai nagusi gisa aintzatesten du.
- Estatuaren, merkatuaren, komunitatearen eta familien arteko erantzunkidetasunerako deia egiten du.
- Gobernuen konpromisoan berresten da, tokiko politika publikoak indartzeko.

Europako Zaintza Estrategia (Europar Batasuna, 2022)

- Zaintza sistema publikoak eta irisgarriak sortzearen alde egiten du. Tokiko erakundeak unibertsaltasunaren berme ezartzen ditu.
- Zaintzaileentzako lan-baldintza duinak eskatzen ditu.
- Asistentzia sistemen eta erakundeen arteko koordinazioaren beharraz ohartarazten du.

NAZIOARTEA

«Gure mundua eraldatu: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda»

Nazio Batuen programa (2015)

2030 Agenda zaintza politika publikoen erdigunean kokatzera bultzatzen ditu administrazio publikoak. Horrez gain, udalerrriak aldaketa eragile estrategikoak direla ulertzen du eta hala jarduteko eskatzen die. Zaintzari dagokionean:

- Ordaindu gabeko zaintza-lanak birbanatzeko beharra azpimarratzen du. Horrek legitimitatu egiten du tokiko gobernuak zaintzari lehentasuna ematea bere plan estrategikotatik, aurrekontuetatik eta ordenantzetatik.
- Elkarri lotutako politiken premia azaltzen du, sektorekako ikuspegiarekin apurtuz. Horrek indartu egiten du zaintzarako udal-politika integralen eta zeharkakoen beharra.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Euskadiren 2030 Estrategia

- Zaintzari genero berdintasuna lortzeko zutabea dela aitortzen dio. Tokiko erakundeei dagokienez, zaintza zeharkako ardatza izan dadin lan egitera bultzatzen ditu.
- Zaintzen eredu erantzunkidea defendatzen du, gizonen eta emakumeen arteko banaketatik haratago doana, eta erakundeen eta komunitatearen inplikazio aktiboa bultzatzen duena. Testuan, esku-hartzeko bide ezberdinak proposatzen dira, eta bereziki honako hau azpimarratzen du: gobernantza eredu parte hartzaileak garatzearen garrantzia zaintza eredu publiko eta komunitario baterako trantsizioan.

2023ko martxoaren 16ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legea

Berdintasunerako Legeak bultzada ematen dio lortu nahi den zainketa-eredu berriari, eta euskal botere publikoei interpelatzen zaie hainbat ardura hartzeko.

- Zaintza eskubide eta erantzunkizun kolektibo gisa kokatzen du, eta norabide horretan tokiko erakundeei ardura konkretuak hartzeko eskatzen zaie.
- Zaintzak egiturazko estrategia feminista baten barruan kokatzen ditu, genero, klase, jatorri edo adinagatik sortzen diren desberdinkeriak bistaratu eta tokiko erakundeei esku-hartzeko eskatuz.
- Harreman zuzena ezartzen da zaintzaren eta indarkeria matxisten prebentzioaren artean, erakundeak bertan behera uzteko indarkeria mota bat ere badela ulertuta.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen 5 R Markoa (LNE, 2024)

5 R markoan ondoko aldarrikapenak egiten dira zaintza-lanen inguruan: aitortza, familien zama gutxitzeko betekizuna, erantzunkidetasuna, lan-baldintza duinak bermatzea eta, zaintza-lan-gileen ahotsa entzutea.

189. hitzarmena, etxeko langileentzako lan duinari buruzkoa, (LNE, 2011)

Nazioarteko akordioa bada ere, tokiko administrazioek politika publikoen bidez har edo bultzada ditzaketen orientabide zehatzak eskaintzen ditu. Garrantzitsuena:

- 'Zaintza ez da lana' ideiarekin apurtzen du, eta lege enplegu hori duintzat, funtsezkotzat eta lan-eskubide osokotzat hartzen du.

Horrek babesten du udalek zaintza-lanak ikusaraztea, baloratzea eta duintzea, baita langileak jazarpen eta diskriminazio mota guztietatik babestea ere.

Zaintzaren definizioa

Aurretik aipatu denari jarraiki, zaintzak gogoeta eremu garrantzitsu bilakatu dira, alor akademiko, sozial zein politikoa, eta horien inguruan dagoen eztabaida biziak askotariko adierak ekarri ditu. Jarraian horiek multzokatzeko saiakera egiten da, ikuspegi orokor bat izate aldera:

1.

Menpekotasuna

Badira zaintza **menpekotasun-arretarekin** lotzen dituzten erreferentziak. Horiek zaintzaren erregulazio markoan jasotzen den definiziora hurbiltzen dira. Espainiako Estatuko 39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak mendekotasuna zer den definitzen du, baita mendekotasun-pertsonari eman beharreko arreta zein den ere. Lege horretan, gaitasun guztien jabe izan ez eta bizitzako jarduerak aurrera eramateko beste pertsona baten laguntza behar izatearekin lotzen da zaintza. Hala, adiera multzo horretara gerturatzen direnentzat, honakoa izan daiteke zaintzaren definizioa: haur, adineko, gaixo edo eguneroko lana garatzeko eragozpenak edo beharrizan biziagoak dituen ezein pertsona laguntzeko ematen den laguntza.

2.

Dominazio patriarkala

Bigarren olatuko pentsamendu feministak zaintzaren inguruko begirada zorrotzu eta harreman sozialak kokatu zituen zaintzaren definizioaren oinarrian. Ondorioz, zaintza **dominazio patriarkalean emakumeak azpiraturik mantentzeko oinarri** material gisa ere ulertzen dira zaintza-lanak.

3.

Eskubide soziala

Zaintza krisi testuinguruan pertsonen beharrei erantzuna emateko ezintasuna gero eta nabariago denean, bizitza duinak izateko ezinbestekoak diren premiak asebetetzea lehentasun bihurtu da justizia sozialaren ikuspegitik. Horregatik, jendarteko sektore ezberdinen aldarri bihurtu da **zaintza eskubide sozial gisa**, eta mugimendu feministak indartu du aldarrikapen hori greba orokor feministen testuinguruan.

4.

Bizirautea

Komunitateen hauskortasuna nabarmenagoa egin zaigun garaiotan, zaintza, hain zuzen ere, bizitza sozialaren prekarizazio horri erantzuteko aldarri gisa ere ageri da. Hau da, **zaintzaren ikuspegia zabaldu eta komunitateek bizirautea ahalbidetzen duten askotariko jarduera multzo gisa ulertu da**. Ikuspegi horretatik, zaintzen eremua jendarte eredu eraldatzeko eremu estrategikoa dela ikusi da eta, beraz, jendarte eraldaketarako duen potentzial politikoa azpimarratzen da.

Gaur egun, zaintzaren kontzeptua malgua da, definizio itxi eta bateratu bat ez dagoelako. Gainera, testuinguruaren arabera esanahi bat edo beste hartzen du. Ondorioz, garrantzitsua da, zabal-tasun horretan ez galtzeko, zaintzen antolaketa eraldatzeko tokiko prozesuetan zaintzaren ulerkera bateratuetara heltzea.

Zaintza-lanak feminismotik

Lurreratze ariketa horretan, lagungarri izan daiteke zaintza-lanei buruz hitz egitea eta honako gako hauek kontuan hartzea:

Zaintza-lanen inguruko zehaztasunetara jotzeko premia dago tokiko prozesuetan, eraldaketarako urratsak nondik ematen hasi irudikatzen. Hala ere, berebizikoa da zaintzaren ikuspegi zabala begibistatik ez galtzea: nahiz eta zaintzarako behar bereziak edo intentsiboagoak egon, guztiok beharko ditugu bizitza osoan zehar. Gainera, zaintza ez da pertsona artera mugatzen, aitzitik, lurralde edota ingurumenara era zabaltzen da. Zaintza premia unibertsala da, nahiz eta bizitzako ziklo edo egoeren arabera hainbat forma hartu. Ideia horrek, zaintza eskubide unibertsala izatearen aldeko aldarrikapena hobeto ulertzen laguntzen du.

→ Zaintzak egunerokoan bizitza zein ongizatea mantentzeko eta kudeatzeko lanak izan daitezke. Pertsona bat edo askoren behar fisiko, psikologiko eta emozionalak bermatzeko lanak barneratzen dituzte zaintza-lanak. Zaintzaren ezaugarrietako bat da pertsonen haragizko alderdi materiala, gorputzak ari baitira zaintzen; bai jasotzen, bai ematen.

→ Alderdi materialaz gain, zaintza-lan batzuek badute erlazio-osagai indartsu bat ere, pertsonen arteko hartu-emanean gauzatzen baitira. Kasu horietan, pertsonaren ongizate emozionalak lotura zuzena du zaintzarekin. Horregatik subjektibitate karga handiko lanak direla esaten da, emozio, sentipen, afektu edo afektu ezarekin lotzen baitira, baina ez halabeharrez.

→ Zaintza-lanak, besteak beste, hauek izan daitezke: zuzenekoak, pertsonala zein erlazionala (beste bati jaten ematea, beste bat garbitzea...), eta ez-zuzenak edo zeharkakoak (sukaldean aritzea, telefonoz deitzea...).

→ Gainera, zaintza-lanak aldi berean egin daitezke; hots, jite bereko edo bestelako lan batzuekin uztartu daitezke, eta horrek zama areagotzen du. Pertsona zaintzea ez da soilik zuzenean edo zeharka norbait artatzea. Egoera mental bat ere bada. Etengabeko ardurak eta erabilgarritasunak, arreta izatea eskatzen dute. Horregatik, ekintza konkretuekin baino lanen bat egiteko denbora potentzialarekin lotu izan dira.

→ Zaintza-lanak ordaindutakoak edo ordaindugabeak izan daitezke. Soldatapekoak diren lanak, eremu formalean egiten direnak, zaintza beharginek egiten dituzte eta ordainsaria jasotzen dute trukean. Askotariko zerbitzu pertsonaletan jarduten dutenak sar ditzakegu multzo horretan. Soldatapekoak ez diren zaintza-lanak, aldiz, ez dute ordainsaririk jasotzen, eta eremu informalean egiten dira —nahiz eta Espainiako Estatuko Mendekotasun Legetik eratorrita hainbat laguntza ekonomiko ere egon—.

2.

Zaintzen demokratizazio prozesuetarako oinarriak

JARRAIAN PROPOSATZEN DIREN JARDUKETA ETA PRINTZPIOAK APLIKATZEA GARRANTZITSUA DA ZAINZA-LANEN ANTOLAKETA ERALDATU NAHI BADA UDALERRIETAN:

Ikuspegi feminista

Indarrean dugun zaintza-lanen antolaketa ereduak sortzen dituen bidegabekeriaren artean bereziki azpimarratzekoak hauek dira: feminizazioa, familiarizazioa, arrazializazioa, prekarizazioa eta esplotazioa. Aktibatzen ditugun eraldaketa prozesuak printzipio feministan oinarritzeak ondorio positiboak izan ditzake bidegabekeria horiek konpontze aldera. Izan ere, printzipio feminista zainketen eraldaketa-prozesuetan aplikatzea funtsezkoa da, gizarte bidezkoagoa eta berdinzaleagoa lortzeko, non zaintza-lanak behar bezala balioesten diren, genero guztien artean modu justuan banatzen diren eta zaintzen dutenen zein zainketak jasotzen dituztenen ongizatea bermatzen diren. Finean, printzipio honen aplikazioak inpaktu positiboa du zaintza-lanaren birbanaketan, politika publikoen hobekuntzan, zaintzaileen ongizatean eta pertsona guztientzako zaintza sistema inklusibo eta iraunkor baten sorreran. Eta horrek, zuzenean, emakume askoren bizitza hobetzea dakar.

*

Printzipio honi esker gainditu egingo da egungo zaintzen antolaketa emakumeen eta bestelako gorputz esplotatuen gainean ezartzen duen egiturazko indarkeria, adibidez, ordaindu gabe edo esplotazio-egoeratan zaintza-lanak egiten dituzten emakumeek jasaten dutena.

1

2

Elkarmenpekotasunaren aitortza

Beldurra ematen duen arren, zaurgarritasuna bizitzaren parte da. Existentziaren baldintza da, zaurgarri eta hauskorrak gara, zaintzen ez bagara, ondoeza areagotzen da, eta ondorioz, zaintza ezinbestean behar da bizirauteko. Bizitza ez bada zaintzen are eta gehiago prekarizatuko da, hau da, hondatu, eten. Zaurgarritasuna ekidin ezin dugun bizi-baldintza den heinean, zaintza-aren afera halabeharrezkoa bihurtzen da.

*

Printzipio honi esker ulertzen da zaintza politiken sakoneko garrantzia eta gaitasun estrategikoa.

Begirada interseksionala

Aldagai jakinek testuinguru batean hartzen duten esanahiaren arabera maila soziala aldatu egiten da. Ondorioz, gu guztion bizitzak ez dituzte indarkeri berdinek zeharkatzen. Zaintza sistema ez da errealitate sozial horretatik iragazgaitza, zaintza-lanen banaketan generoak, jatorriak, arrazak, adinak edota klase sozialak eragin zuzena baitute. Zaintza-lanen antolaketak elkarreraginean dauden zapalkuntza iturrietatik edaten du eta bereizkeriak eragiten ditu talde sozial ezberdinen artean.

*

Printzipio honek aldagai sozial ezberdinen gurutzaketan sortzen diren errealitate konplexuak ulertu eta eraldatzea ahalbidetzen du. Horri esker, zapalkuntzak nola artikulatzen diren ezagutu eta esku-hartzeak hobetu ahalko dira.

Zeharlerrotasuna

Toki-entitateetan zaintza zeharlerro bilakatze-ko gizarte eta berdintasun sailaz gain beste arloetako konpromisoak behar dira. Zaintza politikek udal antolaketa berri bat eskatzen dute zeinetan ordezkari politiko, teknikari, erakunde publiko eta komunitarioek elkarrekin lan egingo duten. Sail eta sektore arteko taldeak sortu daitezke, talde eragileak, foro komunitarioak, edo bestelakoak, baina gakoa ikuspegi integrala geureganatzean datza; egun dauden zatiketak eta departamentalizazioak gainditzea, alegia. Zabaldu beharreko lankidetzak esparruetan ez dira bakarrik udal barruko langile, politikari edo teknikoak izango; garrantzitsua da udalaz gain, bestelako erakunde publikoak, ehun sozioekonomiko eraldatzailea edota komunitatea artikulatuko dituen prozesuak aktibatzea.

*

Printzipio honi esker lortuko da zaintzak gizarteko alor guztietan duen inplikazioaz ohartaraztea eta guztien arteko erabakimena bultzatzea.

Trantsizio politika


Ezinbestekoa da zaintza politiketan pentsatzea trantsizio politika gisa. Horrek, arnas luzeko prozesuak egitea eskatzen du, etapa ezberdinez osatua, non etapa bakoitzean errealitatearen maila ezberdinak eraldatuko diren. Batetik, larrialdi egoerei, egoera prekarioenei eta gaur egun kolapsatuta dauden egoerei erantzungo dien politikak abian jartzea berebizikoa da. Horrela, zaintza sistema eraldatzeko prozesuek pertsonen bizi baldintzetan eragin zuzena izango dute. Horretarako ezinbestekoa da erakunde publikoek berariazko zaintza politika eraldatzailerak abian jartzea, planteamendu merkantilistatik aldentzea eta zaintzen berrantolaketa justu bat oinarrian izatea. Pertsonen bizi-zikloan zaintza duinak eta unibertsalak bermatuko dituen zaintza sistema publikoan hartuko luke forma neurri horrek. Bestetik, zaintza sistema eraldatzeko prozesuek aldaketa sistemiko eta integralagoak ematen lagunduko dute, hau da, eraldaketa feministan sakontzen. Laburbilduz, zaintza politikak itsasargia izan beharko lukete, trantsizio hori bideratzeko eta eraiki nahi den gizarte ereduaren sakontzeko.

Zaintza politikak ondorengo helburuen baitan ardatzu:

- A** Zaintza-lanak politikoki eta ekonomikoki aitortzea.
- B** Zaintza-lanak kolektibizatzea eta era justuan banatzea.
- C** Zaintzaileen bizi eta lan baldintzak duintzea.
- D** Pertsona ardatz duen arreta ereduaren eraikitzea.



Printzipio honi esker zaintza prozesu eraldatzaileak era progresiboan garatuko dira eta, maila ezberdinetan hobekuntzak ekarriko dituen politikak aktibatuko ditu.




Begirada sistemikoa

Aldaketa txikiek eraldaketa handiak ekar ditzakete. Era berean, egungo gizarte antolaketa ematen dituen aukerak baliatu behar dira dagoena hobetzeko. Horregatik da garrantzitsua zaintza-aren alorrean sustatu nahi diren prozesuak, beste eremu batzuekin elkarlotuta daudela ulertzea eta elkar eragiten dutela jakitea: lan politika, hirigintza, herri eredu, tokiko garapena, berdintasun politikak, gizarte politikak, etab. Zaintzari ezin zaio soilik politika sozialen prismetatik begiratu, ezta osasun eremutik ere. Zaintza erregimena hobetzeak begirada integrala eskatzen du. Sektoreen arteko elkarlanak zaintza dimentsioa zabaltzeaz gain prozesuak errotzea eragiten du.



Printzipio honek bateratasunaren, adostasunaren eta elkarlanaren garrantziak ohartarazten du, zaintza erregimenaren eraldaketa beste eremu batzuetako aldaketekin batera eman behar baita.



Tokian errotua

Zaintza antolaketaren hobekuntza gertuko ingurunetik hasi behar da eta zentzu horretan, lekuko baldintzak ezagutzea eta horien araberrako prozesuak diseinatzea gakoa da. Diagnostiko batetik abiatzeak laguntzen du ingurune hurbila hobeto ezagutzen. Tokikotasuna, ordea, egoeraren azterketatik harago doa; prozesuak lekuan lekuko baldintzen, baliabideen, helburuen, erritmoen, pertsonen, mugen eta aukeren arabera garatzea esan nahi du. Tokikotasuna, halaber, arrakastarako bide gisa ere ulertu behar da: eraldaketa prozesuetan parte hartzen duten pertsonak gertuko sentitzen badute, borondatea eta inplikazioa handiagoa baita. Eraldaketa ez bada inguruko behar, gogo eta desioetatik abiatzen, nekez helduko dira inora aktibatuko ditugun prozesuak.



Printzipio honi esker tokiko ezaugarrien araberrako prozesuak diseinatuko dira eta errotze horrek ahalbidetuko du eraldaketa beste maila batzuekin artikulatzea eta aberastea.


Publiko-komunitarioa

Kontraesankorra dirudien arren, gizakion arteko desloturak eta atomizazioa areagotzen ari diren garaiotan, geroz eta argiago ikusten da bizitza zaintzeko modu bakarra komunean dela. Komunitatea ez da boluntario sare bat, erakundeek egin beharko luketena eta egiten ez dutena doan egingo duena. Aitzitik, sektore publikoa demokratizatu eta hedatzeko eremua da. Zaintzen antolaketa eraldatuko bada, esparru publikoa eta komunitarioa artikulatuko dituen eredu bat behar da, non eremu bakoitzak funtzio propioak izan eta elkarrekin arituko diren.

Izenak adierazten duen bezala, zaintza sistema publiko-komunitarioak bi protagonista nagusi ditu: alde batetik, administrazio publikoa, eta, bestetik, ehun soziala. Bata zein beste modu partikularrean interpelatu dituen eredu partekatuek:

- Erakundeen kasuan, **politika publikoak egiteko moduak eta egiturak berritzea** ezinbestekoa da. Besteak beste, herritarren aitortzan, aniztasunaren kudeaketan, prozeduretan, erritmoetan, aktibatzen diren parte hartzeko prozesuetan. Hori dena egin ahal izateko erakundeak barrura begira jarri beharko dira eta bertako langileak, teknikoak, ordezkariak, egiturak edo lan moldeak herritarrengana gerturatzeko neurri zuzentzaileak hartu.





- Sistema publiko-komunitarioak, bestalde, **komunitate indartsuak** behar ditu, bizitzaren erreprodukzioaren alde autoantolatutako sareak, ikuspegi kritikoz jarduten dutenak, ekintzarako gaitasunaz jabetuta daudenak, parte hartzaileak eta engaiatuak direnak. Komunitatea ez da bat eta bakarra, baizik eta anitzak, hauskorrak eta etengabeko eratze prozesuan daudenak. Ehun sozialaren mesedetan eta honekin batera lan egingo duten politikak elikatuko dute komunitate bizien lurra.

Komunitateak diogunean, etengabe eraketan ari diren harreman sozialak dira, alegia, bizirik dauden elkarreragineko gizakien arteko artikulazio sareak. Komunitateak ere izan daitezke ingurune batean garaturiko harreman eta emozioen ekosistemak, eta horiei bizirik eusten dieten prozesuak. Afektuzko, elkar babesean oinarrituriko eta konpromisozko harremanak izan daitezke, baita elkarrekikotasun eta elkartasun sareak, agentzia politikoa, herritarren parte hartzea eta hurbileko antolaketa ere. Baina gatazka eta bidegabekeriek gurutzaturiko errealitateak ere badira. Ezin da komunitatearen erromantizazioan erori, jakina baita jendartea egituratzen duten bidegabekerien sorleku eta erreprodukzioarako eremua ere badela. Hain zuzen ere, komunitatean errotzen diren desberdinkeria guztiak aitortuta soilik aurre egin dakieke komunitatean ematen diren bidegabekeriei.



Printzipio honi esker alor publikoa komunitatearekin artikulatuko duen zaintza eredu baten alde egiten da. Elkarlana ardatz duen eredu horretan, publikoaren eta komunitatearen balioa aitortu ez ezik indartu egiten da.

Demokratizazioa eta ahalduntze komunitarioa

Zaintzen duten lurraldeei buruzko hausnarketa kokatuak eta partekatuak izan behar dira prozesuen abiaburuan: ongi zaintzeaz zer ulertzen den, zaintzaren bidegabekeriak zein diren edo prozesu eraldatzaileak zertarako abiatuko diren. Horiek guztiak adostu behar dira ezberdinen artean. Horretarako guneak sortu behar dira. Kasu batzuetan, egitura berriak sortu beharko dira eta, beste batzuetan, jada sortuta dauden egituretan zaintzen auzia txertatu beharko da. Egitura horietan, guztien ahotsa entzuteko bitartekoak ezarri behar dira, eta batzuen pribilegioak eta besteen mugak gainditu. Prozesura lotutakoek erabakimena eta harreman loteslea izan behar dute administrazioarekin. Hots, erabakiguneak zabalak izan behar dira. Horretarako, udalerrietako gobernantza ereduak aztertu eta demokratizazioan sakondu behar da.

Gaur egun, zaintzaren fluxuetan protagonista direnak (zaintzaileak edo zaintza premia bereziko pertsonak eta horien ingurunea) lehen lerroa ekarri behar dira, eta horrek gobernatzeko beste forma batzuk esperimintatzea eskatzen du. Goitik behera diseinatu eta artikulatutako prozesuek zaintzaren alorrean ez dute atxikimendurik sortuko. Beraz, behar da: alde batetik, prozesuak zaintzea, erritmoak errespetatzea, ebaluazio etengabea egitea, sistematizatzea eta hobekuntzak egiteko mekanismoak jartzea; eta bestetik, komunitatea ahalduntzea (zaintzaren alorrean trebatu, baliabideak eskaini eta kultura politiko berriak hauspotu).

Prozesu eraldatzaileetan ondo zehaztu beharko dira subjektu bakoitzaren funtzioak, egitekoak eta ardurak zein diren eta, ziurrenik, prozesuan zehar aldakorrak izango dira, dinamikoak. Horregatik, egitura hauek malgutasunak ardazturi-koak izatea proposatzen da, administrazio publikoaren egungo zurruntasunetik aldentzeko.



Printzipio honi esker demokratizazio prozesuetan sakontzen da, eraldaketa kanpoan ez ezik barne mailan ere emanez.

3.

Zaintza erregimen atzerakoia

Hiperfeminizazioa

Gizonen absentzia

Arrazalizazioa

Zaintza lanak emakume arrazalizatu eta migranteen bizkar

Familiarizazioa

Familia da zaintza emaile nagusia

Merkantilizazioa

Irabazi asmoen logikan

Martinez Bujanek (2011) EAEko ereduari hautazko familista deritzo:

- Gizarte zerbitzuak
- Prestazio ekonomikoak
- Etxeko langileak kontratatzea
- Familiaren zaintza

uztartzeko dira.

DESKONEXIOA: ZAINZA UHARTE LEHIATILA ETA IKUSPEGI UGARI

UGZ

Osakidetza

Hezkuntza

Etxebizitza
politika

Ez dago berriazko zaintza sistemarik

Egungo zaintza erregimen bidegabeak zaintzailearen bizi eta lan baldintzak zein ongizatea oztopatzen ditu:

- Lan prekarietatea
- Lan merkatuko segmenatzioa
- Pobreziaren feminizazioa
- Jardun bikoitzak
- Emakumeen giza eskubideak kolokan jartzea
- Denbora pobrezia
- Bizi proiketuen alboratzea
- Bazterketa soziala edo indarkeria matxista biziak

UGZ* larrialdi dispositiboa da, salbuespen izaera dute:


- Menpekotasuna artatzeaz gain beste funtzio ugari dituzte.
- Zaintza ez da bizitza osoko behar gisa tratatzen.
- Eredu asistentzialista.
- Pertsonen beharretan fokoa, gaitasun eta desioak kontuan izan gabe.
- Profesionalen iritzia gailentzen da erabiltzaileenaren gainetik.
- Aurrez zehaztutako kartera zorrora eta zerbitzuen kudeaketara mugatzen dira.
- Logika burokratikoak eta aurrekontu mugatuak.

*UGZ: Udal Gizarte Zerbitzuak
*ELZ: Etxeko Laguntza Zerbitzua

EAEko biztanleria

2.227.684 pertsona

1.144.196



1.083.4801

30 urtetan
65 urtetik gorako
populazioa
bikoiztuko da.

+65 urte → %16,61

198.613



+80 urte → %7,31

104.005

x2



zahartzaroaren
zahartzea

20 urteetan
80 urtetik gorako
populazioa
bikoiztuko da.

65 urtetik gorako
pertsonek
%35ak
desgaitasuna
izango du.


menpekotasun eskakizunak:

2018 → 102.813

2025 → 117.866

%60,5

Prestazio eskubidea: 85.082



Merkantilizazioa

Egoitzen **%87**
esku pribatuetan daude.

Plazen **%89**
kudeaketa pribatua dute
eta enpresa kontzentrazio
handia dago.

EUDELeK egindako mapaketan,
aztertutako 135 herrietan ELZ
publikoa izan arren,
enpresa pribatuek
%78,9
kudeatzen dute.

Eguneko zentzuen kasuan
%56,5.

Zerbitzu horietan gainera
kontzentrazio handia dago.

OIT: Munduko emakumeen
%75 dira etxeko langileak.
100 milioi
direla kalkulatzen da.
(2018)

Azken hiru urtetan
emakumeen


%7,3k

lan-jarduera eten dute
kontzillazio arrazoiengatik

Gizonak **%1,5** izan dira.

Hiperfeminizazioa


Etxeko lanak



Haurren zaintza



Helduen zaintza



Mendekotasunaren

%90 dira emakumeak
%40ak 45 urtetik gora

Senideak zaintzeko

23.948 izan dira 2018an
Emakumeek eskatu
%84,4ko kasuetan

Legeak

- 39/2006 Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
- 12/2008 Legea, Gizarte zerbitzuena.
- 4/2000 Legea, atzerritartasunari buruzkoa.
- 16/2022 Errege Lege Dekretua, etxeko langileen lan-baldintzak hobetzeari buruzkoa.
- 27/2011 Legea, Gizarte Segurantzako sistemari buruzkoa.

169.141



58.791

Zahartzaroaren feminizazioa

%39,5

GORANZKO JOERA

Familiarizazioa

PRESTAZIOAK: 44.792

FIZPE — 24.887

LEEP — 3.412

GLL — 1.517

ELZ: 17.130

EGUNEKO ZENTROAK: 15.784 plaza

TELEASISTENTZIA:



59.677 emakume

19.991 gizon

79.668

EGOITZAK: 30.925 plaza

zazioa

Emakume aktiboen %59,8k etxekolanak egiten ditu eta gizonezkoen artean %62,1ek.

Aktibo ez dauden gizonezkoen artean %31,8k maiz ez du etxekolanik egin.

EAEn

1061 eskakizunetatik

% 84 emakumeenak

izan ziren

Zaintza lanagatik

emakumeen

%0,7k

ezin du lanik egin.

Arrazalizioa

2017an, 565.100 pertsona zeuden zaintzarako kontratatuak.

Horietatik,

→ %63,1 atzerritarrak ziren.

220.000 pertsona

merkatu ez arautuan zeuden lanean.

2005ean,

24.800 pertsona



zeuden etxeko zerbitzuan.

2014ean,

31.700 pertsona



eta 2017an,

29.683 pertsona



EAEn

Horietatik,

→ %38 atzerritarrak ziren eta %93 emakumeak.

4.

Udalerrietan zaintza-lanak demokratizatzeke prozesuetako premisak

GIDA HONETAN PROPOSATZEN DIREN ZAINTZA-LANEN ANTOLAKETA ERALDATZEKO PROZESUEK HAINBAT PREMISA BETETZEA ESKATZEN DUTE. HORIEK PROZESU ERALDATZAILEEN O URRATS GISA ULERTU DITZAKEGU, ONDORENGO PAUSUETAN ERAGIN POSITIBOA IZATEAZ GAIN, ETENGABE PRESENTE IZAN BEHARREKO IDEIAK BAITIRA.

Herri zaintzaileak eraikitzea politika publikoa egitea da

Ulertu behar da zaintzen afera gizarte-transformaziorako eta justizia sozialean sakontzeko lehengaia dela. Zeharkakoa da, gizarteko eremu guztiak ukitzen dituelako eta, ondorioz, udaleko sail guztien inplikazioa eskatzen du. Eraikitze hori ez da sailen arteko lankidetzaz edo indarren batuketa hutsaz lortzen. Nahiz eta lagungarria izan, zaintzen antolaketa eraldatzeak ikuspegi bateratua, globala eta estrategikoa izatea eta politika integralak garatzea eskatzen du. Apustu orokor eta tronkal batez ari gara beraz, tokiko erakundeen bihotzean ernaltzen dena.

Hasierako txinparta

Jakina da zaintza-lanen antolaketa krisian dagoela eta aldaketak behar dituela. Zaintzaren krisiaz ari garenean ezintasunaz ari gara, hau da, gizarte honetako norbanakoek beren burua zaintzeko, besteak zaintzeko edo zainduak izateko azaleratzen diren geroz eta zailtasun handiagoz. COVID 19-aren pandemiak, krisi hori azkartu eta lehen lerrora ekarri zuen. Hala ere, gida honetan aipatu denez, arazoak egiturazko izaera dauka eta beraz, lehenagotik dator.

Ezintasunari aurrea hartu eta zaintza-lanak demokratizatzeke asmoak sorburu ezberdinak izan ditzake. Beste era batera esanda, zaintzak eraldatzeko prozesuak aktibatzen garamatzen irrika leku ezberdinetatik etor daiteke, hala nola, gobernu-taldearen apustu politikotik, langile teknikoek hautemandako beharrei erantzuteko nahitik, udal kanpoko mugimenduen aldarrikapenetik, egunerokoan azaleratutako larritasunetatik eta abar. Jatorria ezein delarik ere, motibazioa da garrantzitsua, hasierako txinparta horri esker pizten delako sua.

Ezinbesteko osagaia: konpromiso politikoa

Irrika nondik-nahi etor daiteke, baina prozesuek ez badute babes politiko nahikorik nekez helduko dira helmugara. Zaintza-lanen antolakuntzaren eraldaketa prozesuek ezinbestekoa dute tokiko entitateen konpromiso politikoa.

Konpromiso hori zenbat eta zabalagoa izan, orduan eta aukera gehiago egongo dira urrunera heltzeko. Gainera, konpromiso politikoa ez dagokio soilik tokiko udal gobernuan agintean dagoen alderdiari, aitzitik, oposizioko taldeei ere badagokie. Izan ere, zaintzek justizia sozialarekin dute zerikusia eta horrek alderdikeren gaintetik egon beharko luke. Hain zuzen ere, zaintzak demokratizatze prozesuek agintaldiz agintaldi irauten dutela bermatzeko bitartekoak ezarri behar dira: alderdi ezberdinen artean akordioak sinatuz, osoko bilkuran honen aldeko konpromisoak onartuz, zaintzen demokratizazioaren aldeko ordenantzak sortuz, zaintzek ardazturiko aurrekontuak onartuz edo bestelakoak.

Adostu: zer, nola eta zertarako

Ikusi dugunez, iturburu ezberdinetatik etorri daiteke zaintzak demokratizatze beharra baina horrek garapena izateko ezinbestekoa da babes politikoak. Babes politikoak maila praktikoan inplikazioa izatea esan nahi du eta hori ez dagokie soilik ordezkari politikoei. Zaintzak demokratizatze prozesuek bestelako ahotsak biltzea eta aktibatzea ere eskatzen du, hala udal barrukoak (langileak, teknikoak, aholkulariak...) nola udal kanpokoak (elkarte eta mugimenduak, hirugarren sektorea edo erakunde pribatuak, udalaz gaindiko erakundeak...). Horiek guztiek ez dute pisu bera izango prozesuan eta identifikatu egin beharko dira zeintzuk osatuko duten motorea.

Askotariko ahotsak bildu arren komuna izan beharko da prozesuarekiko ikuspegia. Ondorioz, eraldaketa prozesuak zein helburu dituen, zer egingo den eta nola landuko den erabaki beharko da eragile estrategikoen artean. Hiru galdera horien bidez, tokian tokiko prozesu eraldatzaileen misioa argituko da eta, aldiz, asmoa lankidetzaren bidez gorpuztuko da.

Lankidetzaz ardatz

Aipatu den bezala eta azpimarratzeko, epe luzeko prozesu hau ezin da erakunde mailako ordezkari eta teknikoekin bakarrik egin, bestelako indarrak biltzea eskatzen du. Zentzu horretan, ezinbestekoa da zaintzaren ingurumarian dabilzan tokiko eragileak identifikatzea eta haiekin elkarlanerako aukerak irekitzea.

Hona hemen, zaintzak demokratizatzeke prozesuetan bateratu beharreko zenbait ahots:

1) Udala

- Udaleko sailen arteko lankidetzaz bultzatu behar da, zaintza ez baita soilik berdintasun edo gizarte sailen ardura.
- Udaleko ordezkari politikoen eta teknikarien artean sintonia sortzeke moduak bilatu behar dira.
- Biak ala biak lortzeke, lidergo politikoa gakoa da.

2) Udalaz gaindiko erakundeak

- Kontutan izan behar da zaintzaren eremuan eskumenak zatikatuta daudela eta, beraz, udalaz gaindiko erakundeekin ere lan egin behar delako, besteak beste, mankomunitateak, Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza, Osakidetzaz edo hezkuntza. Eskumenen zatikatzeko horrek ez du laguntzen zaintza-lanak era integral eta koordinatu batean gauzatzen, ezta zaintzen antolaketa demokratizatzeke tokian toki aktibatuko diren prozesuak gaitasun osoz jarduten ere. Garrantzitsua da muga horien jakitun egotea, baina, aldi berean, horiek gainditzeko ahalegina egin eta eskala handia-goan ikuspegiak bateratzeko moduak ere bilatzea.

3) Herritarrak

- Prozesuetan ezinbestean egon beharrekoak herritarrak dira. Horiek langileen eta teknikoekin bestelako ikuspegiak emango diote prozesuari. Herritarren artean dauden profil asko izan daitezke interesgarriak, baina zaintza premiak dituztenak eta iraupen luzeko zaintza-lanetan inplikatuakoak nabarmendu behar dira bereziki.
- Parte hartzeke une eta gune propioak sortu daitezke profil bakoitzarentzat, baina elkarrizketarako espazio bateratuak sortzea ere interesgarria da, bisio komuna eratzeke.

4) Ehun soziala

- Sortzen diren egitasmoek komunitate mailan arrakasta eta eragina izateko, ehun antolatua ezinbesteko ahotsa izango du.
- Herriko elkarteak, mugimendu sozialak, gizarte taldeak, etab. eragile garrantzitsuak dira zaintza-ren alorrean dauden ezintasunak gainditzeko eta herritarren inplikazioa sustatzeko.

5) Zaintzaileak

- Ahots kualifikatuak dira halako prozesuetan, esperientziak emandako jakituria baitute. Haiekin hartu emana izatea estrategikoa da diagnostikoak egiteko momentuan, egitura berriak sortzerakoan, ekintza planak diseinatzerakoan edo egitasmo berriak martxan jarri eta ebaluatzerakoan.
- Parte hartze sozialerako zailtasunak izan ditzakeen kolektiboa da. Ondorioz, baliabideak nahiz tresnak jarri beharko dira haien ahotsa entzuteko eta iritzia jasotzeko.

6) Zaintzako sektore profesionala

- Gaur egun zaintza profesionalen sektorean enpresa pribatuak, kooperatibak eta hirugarren sektoreko elkarte ugari daude. Zerbitzuak kudeatzen dituzte, eta, horregatik, haiekin hartu-emana izatea ezinbestekoa da, zaintzaren ikuspegia partekatu, aldaketaren norabidea adostu eta ekosistema berria sortzeko.
- Hala ere, askotariko ikuspegietatik lan egiten duten entitateak egonik, irabazi asmoa dutenak eta ez dutenak bereiztea garrantzitsua da, zeintzuk lehenetsi nahi ditugun hausnartzea, eta haiek erealdaketarekin konpromisoa hartzeko bitartekoak ezartzea.

Baliabidez hornitu

Politika eraldatzaileak martxan jartzeko berme politikoaz gain baliabide eta bitarteko ekonomikoak beharko dira, horregatik, aurrekontu baten beharra azaleratzen da, bai gida hone-tan proposatzen den prozesuei ekiteko, bai prozesuaren ondorioz definitzen diren jar-duketak egin ahal izateko. Horregatik, tokiko entitateek hasieratik bideratu beharko dute prozesuaren fase ezberdinak gauzatzeko diru partida bat.

Prozesura bideratzen diren baliabideen artean, kanpo laguntza teknikoaren kontrata-zioa egon daiteke. Horren alde egiten bada, berebiziko garrantzia izango du, prozesu osoan zehar, laguntza tekniko eskainiko duen elkarte, kooperatiba edo enpresako teknika-riek ikuspegi feminista izatea.

Sistematizazioa

Eraldaketa prozesua martxan jartzeare-kin batera, ezinbestekoa da lortzen diren emaitzak jasotzea. Horretarako, hasieratik, informazioaren sistematizaziorako tresnak zein bitartekoak sortuko dira eta eskuragarri jarriko dira. Garrantzitsua da prozesuan zehar, adibidez, egingo diren bilera edo lan saioetan aktak jasotzea. Epe luzerako prozesuak izanik, unean uneko urratsen erregistroa egin eta partaide berriei informazioaren transmisioa bermatu ahal izango da sistematizazioari esker. Horrez gain, urratsez urrats jasotzen di-ren ohar horiek lagungarri izango dira proze-suaren jarraipen eta ebaluazio momentuan ere, besteak beste, hasierako asmo, eboluzio, emaitza eta eraginak argiago ikusteko.



Zaintzak demokratizatzekeo prozesuak tokian toki aktibatzekeo bideorria

Zer behar da?

Premisak

- Beharra/gogoa
- Konpromisoa
- Adostasuna eta elkarlana
- Lankidetzeta
- Baliabideak
- Sistematizazioa

Momentuko egoera zein da?

- Egoeraren azterketa
- Parte hartzekeo baldintzak sortu
- Trebatu
- Adostasunak topatu

- Datuen bilketa
- Zaintzaileen ahotsa jaso
- Zerbitzu eta eragileen mapa

- Datu soziodemografikoak
- Mendekotasuna
- Zerbitzuetakeo erabiltzaileak

- Zaintzari loturikeo zerbitzuak
- Zaintzaren aktiboak
- Eragile gakoak

Zaintzaile ez profesionalak
Zerbitzu pribatuetakeo zaintzaile profesionalak
Elkarteetakeo kideak
Etxekeo langileak
Udal teknikariak
Zerbitzu publikoetakeo zaintzaile profesionalak

Zer egingo dugu?

Eraldaketak martxan

- Egitura publiko-komunitarioak sortu
- Sentsibilizazioa eta trebakuntza
- Aktibazio eta artikulazio komunitarioa
- Zaintzaileen bizi- eta lan-baldintzak hobetu
- Arreta zerbitzuak hedatu eta pertsonalizatu

Zer lortu da?

Balorazioa

- Prozesua
- Emaidzak
- Eraginak

Barrura begirakeo aldateak

5.

Zaintza-lanak demokratizatzekeo prozesuak urratsez urrats

PROZESUEN OINARRIETAN ETA PREMISETAN AIPATUTAKOAK AINTZAT HARTUTA, ERALDAKETA PROZESUEN EXEKUZIOAN EMAN BEHARREKO PAUSOAK AZALDUKO DIRA JARRAIAN.

5.1 Abiapuntua

EGOERAREN AZTERKETA

Zaintza lanen antolaketa eraldatzeko, lehen-biziko urratsa egungo egoera ezagutzea da. Diagnostikoaren nondik norakoak diseinatzeko, ezinbestekoa da honi egosten dizkiogun helburuak argi izatea, ez baita gauza bera, adibidez, bakardade egoeran dauden adinekoen zaintza beharrak ezagutu nahi izatea edo orokorrean adineko pertsonen zaintza beharrak ezagutzea. Zaintzari buruzko tokiko oinarritzko erradiografia batek jaso beharko lituzkeenak azaltzeko, zaintza-lanen antolamenduan modu batean edo bestean inplikaturik dauden subjektu eta eragileekin egotea, eta zaintzari loturiko zerbitzu edota jardueren egoera eta datuak aztertzea proposatzen da.

Diagnostikoa egiteko, hiru bide jorratzea proposatzen da:

1. Datuen bilketa egitea.
2. Zaintza-lanetan ari diren pertsonen, zaintza premiak dituztenen, erakundeen eta elkarten ahotsak jasotzea.
3. Tokiko zaintza zerbitzu eta eragile publiko eta komunitarioen mapa osatzea.

Zaintza sistema nola antolatzen den aztertzekeo galdera lagungarriak:

- *Nola antolatzen dira zaintza-lanak eremu bakoitzean?*
- *Zein dira gailentzen diren zaintza beharrak? Zenbateraino asebetetzen dira?*
- *Zaintza-lanek duten ikusgarritasun maila zenbatekoa da?*
- *Arrazializazioak, feminizazioak, merkantilizazioak, adinkeriak, eta beste zapalkuntza alda-gaiek nola eragiten dute?*
- *Zein dira zaintzaileen baldintza sozial zein laboralak?*
- *Nola banatzen dira zaintza-lanak eta ardurak?*

1. Datuen bilketa

ZAINZA-LANEN ANTOLAKETAREN ERRADIOGRAFIA OSATUA IZATEKO BIZTANLERIARI ZEIN ZAINZA ZERBITZUEI LOTURIKO DATUAK JASO BEHAR DIRA. HORRETARAKO BIGARREN MAILAKO INFORMAZIO ITURRIETARA JOKO DA, DAGOENEO SORTURIK DAUDEN DATU BASE EZBERDINETARA, ALEGIA.

Datu soziodemografikoak

Iturria: Eustat

- Biztanleriaren datuak generoa, adina eta jatorriaren arabera.
- Biztanleriaren zahartze indizea.
- Biztanleriaren gazte indizea.
- Biztanleriaren mendekotasun indizeak (orokorra/gazte/zahar).
- Pobrezia arriskuan eta pobrezia larrian dagoen biztanleria, generoaren arabera.
- Euskararen ezagutza.
- Bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako biztanleen kopurua.
- ...

Mendekotasun egoerak

Iturria: Udal Gizarte Zerbitzuak eta Aldundietako Gizarte Ekintza Sailak.

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen kopurua, generoaren arabera.
- Menpekotasuna baloratzeko eskaera kopuruak.
- Menpekotasuna baloratzeko itxaron zerrendan dauden herritarren kopurua.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen batez-besteko adina.

Zaintza zerbitzuetako erabiltzaileak

Iturria: Udal Gizarte Zerbitzuak eta Aldundietako Gizarte Ekintza Sailak.

- Etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileak, generoaren arabera.
- Telesistentzia zerbitzuko erabiltzaileak, generoaren arabera.
- Autonomia sustatzeko eta mendetasuna prebenitzeko programako erabiltzaileak, generoaren arabera.
- Egunezko zentroko erabiltzaileak, generoaren arabera.
- Adinekoen egoitzen erabiltzaileak, generoaren arabera.
- Zerbitzuetan dauden itxaron zerrendetako biztanle kopurua.
- Zerbitzuetan dauden langileak, generoa eta jatorriaren arabera.
- Prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten erabiltzaile kopurua, generoaren arabera.
- ...

2. Zaintza-lanetan ari diren pertsonen, zaintza premia duten pertsonen, erakundeen eta elkarten ahotsak

ZAINTZA-LANEN ANTOLAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONA, ERAKUNDE ETA ERAGI-LEETAKO KIDEEEN AHOTSAK JASOTZEA EZINBESTEKOA DA, EGOERAREN IRAKURKETA OSATUA EGITEKO. LEHEN MAILAKO INFORMAZIO ITURRIAK DIRA HORIEN TESTIGANTZAK ETA BERAZ, ELKARRIZKETA BIDEZ JASOTZEA LEHENESTEN DA.

Zaintzako ahots kualifikatuak

- Zerbitzu publikoetako zaintzaile profesionalak.
- Eremu pribatuko zaintzaile profesionalak.
- Etxeko langileak.
- Zaintzaile ez profesionalak.
- Gizarte zerbitzuetako profesionalak.
- Udal teknikariak.
- Tokiko elkarte edo ehun sozial antolatua (degaitasuna duten pertsonen eta senideen elkarteak, jubilatuen eta pentsionisten elkarteak, guraso elkarteak, mugimendu feminista...).
- Zaintza premiak dituzten herritarrak (degaitasuna duten pertsonak, bazterketa egoeran daudenak, adinekoak, gazteak, haurrak, zaintzaileak, etorri berriak...).
- ...



3. Tokiko zaintza zerbitzu eta eragileen mapa (tokiko zaintza aktiboak, baliabideak, zerbitzuak eta eragileak identifikatzea)

ZAINITZA PREMIEI ERANTZUTEKO, UDALERRIAN DAUDEN ZERBITZU ETA BALIABIDEAK JASOTZEA DA DIAGNOSTIKOAREN BAITAKO BESTE LANETAKO BAT. HORRETARAKO, ESTRATEGIA EGOKIA IZAN DAITEKE UDALERRIAN ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK MAPA BATEAN KOKATZEA.

Horiez gain, garrantzitsua da Aldundi, mankomunitate edo udal mailan pertsonen zaintzarako eskaintzen den horretatik kanpo dauden baliabide sozialei zein zerbitzu pribatuei erreparatzea (herriko podologoak, adib.).

Zaintzari loturiko zerbitzuak

Iturria: Udalak eta UGZak

- Ospitaleko akonpainamendua.
- Etxez etxeko hornidura eta zerbitzu espezializatuak.
- Garraio egokitu zerbitzua.
- Landa guneko mugikortasuna errazteko garraioa.
- Etxebizitza zaharren egokitzapena.
- Esperientzia eskolak.
- Oroimen tailerrak.
- Jatordu bateratuak.
- Belaunaldi arteko ekintzak.
- Zaintzaileen arretarako laguntza psikosoziala.
- Adinekoei begirako eskaintza soziokulturala.
- Jubiloteka.
- Bakardade egoeran dauden akonpainamendu zerbitzuak.
- Zaintzaile profesionaleri begirako formazioa.
- Etxeko langileei begirako arreta zerbitzuak.
- Adinekoei begirako ibilbide egokituak.
- Haur eta gazteei begirako ibilbide egokituak.
- Ludoteka.
- Ekimen konkretuetarako haur-zaintzarako zerbitzua.
- Haur eskola.
- Kontziliaziarako eskola ordutegien zabalpena.
- Herriko barrera arkitektonikoak identifikatzea.
- Herriko puntu kritikoak identifikatzea.
- Denbora bankua.
- Etxebizitza komunitarioak.
- Auzolan deialdiak.
- Zaintza sareak.
- Bolondres sareak.
- Baratza komunitarioak.
- Ingurunea zaintzeko egitasmoa.
- Etxeko langileen kooperatiba.
- ...

Zaintzaren aktiboak

Zaintzaren aktiboak dira toki bateko pertsonak, eragileak, komunitate-taldeak edo dinamikak, harremanetan jarri eta elkarren artean lotzen dituztenak. Aktibo horiek pertsonak edo beste mota batekoak izan daitezke. Tokiko zaintzen ekosistema ulertzeko gakoak dira, sarritan zaintzarekin zuzenean harremanik ez izan arren, zeharka eta modu informalean ekarpena egiten dutelako.

Tokiko pertsona eta eragileak elkarren artean harremantzea ahalbidetzen duen hori guztia da zaintzaren aktiboa.

Antolatutako ehun soziala

Baliabide publikoez gain, zuzenean ala zeharka zaintzen duten herri eragileak ere izan daiteke, Udalerrietan dagoen komunitate antolatua identifikatzea zaintza-lanen eraldaketa prozesuetan gakoa da.

- Desgaitasuna duten pertsonen eta senideen elkarteak.
- Jubilatu eta pentsionisten elkarteak
- Guraso elkarteak.
- Kultur arloko elkarteak.
- Jatorri anitzetako herritarren elkarteak.
- Mugimendu feminista.
- Alfabetatzean jarduten duten elkarteak.
- Aisialdi elkarteak.
- Bazterkeria sozial egoeran dauden herritarrei laguntzeko elkarteak.
- Etxebizitza eskubidearen aldeko plataformak.
- Energia burujabetzaren aldeko elkarteak.
- Elikadura burujabetzari loturiko elkarteak.
- Elkarre ekologistak.
- Kirol elkarteak.
- Herritarren edo auzokideen plataforma edo elkarteak.
- Zaintzaile ez formalek udal taldeak.
- ...

Mota honetakoak izan daitezke:

- **Aktibo espazialak:** kalea (herri txikien kasuan, adibidez), parkea, pasealekua...
- **Giza aktiboak:** tokiko erreferentziako pertsonak, zeinak harreman ugari dituen herriko pertsona eta komunitate ezberdinekin.
- **Aktibo pribatuak:** komertzio, taberna edota herritarrek erabili ohi dituzten zerbitzu pribatuak, adibidez.

Laburpena

Zaintza-lanen antolaketaren inguruko diagnostikoa osatzeko ezagutu eta aztertu behar diren eremuak honako hauek dira:

- **Datu soziodemografikoak**
- **Baliabide publikoak**
- **Eremuko ahots kualifikatuak**
- **Gizarte zerbitzuetako datuak**
- **Baliabide komunitarioak**
- **Zaintzaileak**
- **Zerbitzu erabiltzaileak**
- **Baliabide pribatuak**
- **Ehun sozial antolatua**
- **Hirugarren sektorea**
- **Zaintzaren aktiboak**
- **Zaintza premiak dituzten herritarrak**

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK SORTZEA

Parte hartzea egon dadin, ezinbesteko baldintza da informazioa. Hasieratik herritar eta tokiko eragileen eskura jarri behar da prozesuaren gaineko informazioa. Horrekin batera, eragile bakoitzaren rola zein izango den eta bakoitzari zer eskatuko zaion argitzea lagungarria da,

Era berean, modu orokorrean zein sektorialean, prozesuaren hedapena egiteko estrategia komunikatiboak garatzea ere garrantzitsua izango da. Gainera, parte hartzaileen artean, aniztasuna izan dadin eta ahots guztiak ordezkatuak egon daitezen, arreta jarriko da prozesuan erabiliko diren metodologia eta tekniketan. Estrategia parte hartzaileak erabiliko dira nagusiki, prozesuan inplikaturako pertsonak ikasteko, erabakiak hartzeko edo arazoak konpontzeko gaituz. Elkarlana, ideien trukea eta ezagutzaren eraikuntza komuna sustatzea izango da ardatza.

Parte hartze prozesua zaindu egin behar da, eta erakunde publikoek prozesuan inplikaturako eragileen erritmoak, beharrak eta desioak errespetatu beharko dituzte. Emaitzei begirako prozesuak sortu ordez, bideari garrantzia eman-godioten prozesuak abiatu behar dira.



Zaintzak eraldatzeko prozesu parte hartzaileek udal bati honakoa eskatuko diote:

- Harreman zentrifugoak eta zentripetoak garatzea, hau da, joan-etorriko izaera duten harremanak garatzea: barrutik kanpora eta kanpotik barrurako hartu-emanak.
- Eztabaidagune eta erabakiguneak zabaltzea, prozesuen gaineko erabateko kontrola askatuz.
- Egitura publiko-komunitarioak sortzea eta lidergoia partekatzea.
- Ikusten ez diren gorputz eta ahotsei lekua ematea, beti ere gizarte sektore ezberdinen artean dauden botere harremanak kontutan hartuz eta espazio seguruak sortuz.
- Erritmo eta denbora ez instituzionalak aplikatzea (arnasa luzekoak, urratsez-urratsekoak, atsedanak tartekatzeak).
- Malgutasuna eta ziurgabetasuna prozesuaren parte direla onartzea.
- Prozesua noraino iritsi daitekeen argitzea, frustraziorik sortu ez dadin. Epe motzeko, ertaineko eta luzeko helburuak dituzten prozesuak izaki, horiek bereizten jakin behar da. Ezin zaio guztiari hasieratik heldu, eta ibilbide progresiboa irudikatzen saiatu behar da.
- Parte hartzaileak ez dira informatzaile hutsak, prozesuaren aktiboak baizik. Ondorioz, zaindu egin behar dira. Ildo horretan, garrantzitsua da parte hartzaileei prozesua aurkeztea, prozesuan ekarpena egiteko aukera eta erabakimena ematea, lortutako emaitzen itzultzea egitea eta hobekuntzarako proposamenak jasotzea.
- Jada abiatutako prozesuetan errepikatu den arazo feminizazioa izan da. Horregatik, parte hartzeaz ari garenean, ezinbestekoa da hasieratik gizonen inplikazioa nola lortu aztertzea, ez dadin errepikatu zaintza erregimenean dagoen genero arrakala. Zaintza-lanetan parte hartzen ez duten gizonetakoak interpelatuko dituen prozesuak izan behar dira.

TREBAKUNTZA

Jendartean indarrean dauden zaintzari buruzko diskurtsoak aldatzeko sentsibilizazio lana egin behar da, zaintza-lanen gaineko ezagutza areagotu, horiek eraldatu eta iruditeria berriak osatzeko. Horretarako, gaur egungo egoera ezagutu behar da, hots, egungo ereduaren bidegabetasunaren kontzientzia hedatu eta zaintza-lanak kolektibizatzearen beharraz jabetu.



Trebakuntzarako eduki interesgarriak

- **Zer da zaintza?**
- **Zein da egun indarrean dagoen legedia?**
- **Nolako da gure zaintza premiei erantzuteko sistema?**
- **Zein eragile arduratzen dira zaintzei erantzuna emateaz eta zein baldintzetan egiten dira zaintza-lanak?**
- **Zaintza sistemaren eraldaketan esperientzia berritzaileak eta praktika onak identifikatzea.**

ADOSTASUNAK TOPATZEA

Hainbat ikuspegi izan arren, norabideak adostua eta partekatua izan behar du, prozesuan zehar. Horrenbestez, elkarrizketa eta adostasunak bilatu behar dira. Merezki du prozesu eraldatzaileen oinarriak finkatzea eta argitzeko eztabaidari denbora eskaintzea, erabakigune guztietan.



5.2 Eraldaketa

ATAL HONETAN, ZAINTZEN DEMOKRATIZAZIOAN SAKONTZEKO TOKIAN TOKI JORRATU BEHARRERAKO LAN LERRO NAGUSIAK BILTZEN DIRA. LAN LERRO BAKOITZEAN, ESKU-HARTZEKO EGOERA GAKOAK ETA INSPIRAGARRI IZAN DAITEZKEEN PRAKTIKA POSITIBO EZBERDINAK TXERTATU DIRA.

Eraldaketa prozesua abiatzean, alde batetik, kontuan hartu behar da epe luzerako helburuak urgentziazko neurriekin uztartu ahal direla. Prozesu eraldatzaileek bere denbora eskatzen dute baina ez da azken helburuak lortu arte itxoin behar momentuan jada detektatzen diren beharrei erantzuteko. Nahiz eta zaintzen demokratizazioa helburu estrategiko zabala eta mardula izan, aldaketa txikiak eragiten hasi daiteke une honetatik aurrera.

Bestetik, zaintzen eremuan eragiteko, kontuan izan behar dira estrategia horiek udal barruan aldaketak egitea eskatzen eta sustatzen dutela, egitura eta funtzionamendu mailan. Hau da, gizartean zaintzak eraldatzeko prozesuak gizartea gobernatzeko eta kudeatzeko eredu berriekin batera garatu behar dira. Zaintza krisiari aurre egiteko, politika egiteko modu berriak pentsatu behar dira. Ez dute balio goitik behera diseinatutako politikek eta politika publiko zatikatuek, ezta epe laburreko ikuspegi jardun eta banakako esku-hartze partzial zein prozedura erabat burokratizatuekin jarduteak ere. Gizarte sektore zabalen inplikazioa eta epe luzeko ikuspegi integrala behar dira.

Ildo horretan, honako ezaugarri hauek dituen lan kulturara gerturatu behar dute udalek:

- Ausardia politikoa izan, justizia sozialean aitzinatzeko, eta horretarako planteamenduak egin.
- Sailen arteko lankidetzan oinarritutako lan funtzionamendu eta udal arkitektura sortu.
- Udaleko tekniko eta langileen inplikazioa sustatu, tokiko prozesuetan eta komunitatearekiko duten gerturapena indartu.
- Ordezkeri politiko eta teknikoen arteko sintonia lortzeko bitartekoak ezarri (komunikazio zintzoa eta gardena, trebakuntza, prozesu bateratuak, etab.).
- Gizartetik gertu egon: komunitatea eza-gutu, gizartean ematen diren aldaketak kontuan izan, komunitatearen beharrei azkar erantzun, interes komunitarioa lehenetsi eta abar.
- Egitura publiko-komunitariok sortu eta lidergoa partekatu.
- Gizarte sektore zabalekin lankidetzaren sareak artikulatu eta elkarlana abiapuntu eta lehengai izan. Erabakitzekeo ahalmena eman ahots sozialari ere.
- Ehun sozialaren autoeraketa hauspotu eta haiekin interlokuzio politikoa mantendu.
- Udal erraztailea izan (lengoaia ulergarria erabili, zerbitzuei buruzko informazio eguneratua izan, baliabideen eskuragarritasuna bermatu, administrazio prozedurak erraztu, burokrazia apaldu...).
- Gaur egun dauden egitura eta baliabideetatik abiatu. Horretarako, herriko berezitasunak ezagutu: bertako ehun sozial eta politikoa, zaintza aktiboak, herriko kulturak eta abar. Era berean, ondare hori guztia aitortu eta baliatu, prozesuetan aitzinatzeko.

LAN-ILDOAK

Barrura begirako aldaketa horiekin batera eta zaintzen unibertsaltasunean sakontzeko, lehentasunez, honako lan ildoak garatzea proposatzen da, tokian toki:

1. Zaintza sistema publiko-komunitarioa garatzeko egiturak eta neurriak sortzea.
2. Zaintza-lanen balio soziala aitortzeko sentsibilizatzea eta trebatzea.
3. Zaintza-lanen birbanaketarako komunitatea aktibatzea eta artikulatzea.
4. Zaintzaileen bizi- eta lan-baldintzak hobetzea.
5. Zerbitzuak hedatu eta arreta eredu pertsonalizatzea.





ZAINZA SISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA GARATZEKO EGITURAK ETA NEURRIAK SORTZEA

ERRONKA

Zaintza-lanak aitortu behar dira, hau da, lan horien izaera, baita dimentsioak eta tokian toki betetzen dituzten funtzioak ikusarazi. Oro har, gizartean, eta, zehazki, ekonomian egiten duten ekarpena kontuan hartu behar da, eta bizitza sozialeko eremu guztietan betetzen duen funtzioa onartu. Horregatik, udal zein bestelako administrazio organoetan presente egon behar du zaintzaren aferak.

Horretarako, ezinbestekoa da egitura berriak sortzea eta aurretik antolatuta ez dauden eragileak prozesura batzean haien interesak mahaigaineratu eta eztabaidatzeko gune inklusiboak eraikitzea. Gainera, arreta berezia jarri behar da parte hartze kanaletatik at egon direnengana heltzeko. Era beran, historikoki mintzaide politiko izan ez direnek, hain zuzen ere, zaintzaileek, emakumeek, emakume migranteek eta genero disidentziek, ahots propioz ordezkari izan behar dute.

PRAKTIKA POSITIBO POSIBLEAK

- **Zaintza-mahaia sortzea.** Era honetakoak izan daitezke: egitura iraunkorrak edo prozesua eusteko sortutakoak, ordezkari politiko eta tekniko osatutakoak edo ehun soziala ere artikulatzen dutenak. Horietan aztertu behar da, beste erakunde publikoekin zein motatako koordinazioa izango den, bereziki osakidetza eta hezkuntzarekin. Hori dela eta, egitura bakarra izan daiteke edo batzuk, herrira zein lurraldera egokituak.
- **Sailak elkarren artean koordinatzea.** Zaintza politika transbertsala izan dadin, udalean dauden sail edo egiturak ezinbestean busti behar dira. Horretarako, arloz arloko ildo nagusiak aztertu eta horietan politika zaintzaileak bultzatzeko ekinbideak zehaztu behar dira.
- **Lehiatila bakarra edo erreferentzia bakarra sortzea.** Gaur egun lehen arreta ematen duten zerbitzu, baliabide eta eragileen arteko dispartzioa eta etenaldiak sahisteko, egiturak eraldatu behar dira, herritarrei begirako lehiatila eta erreferentzia bakarra sortuz. Garrantzitsua izango da herritarrek edozein delarik haien beharra erreferentzia berdina izatea, hortik arreta eta informazio egokiarekin deribatzea, eta jarraipenerako erreferente tekniko berdina izatea. Honek lagunduko du era koordinatu batean artatzen pertsona bat.


PRAKTIKA POSITIBO POSIBLEAK

- **Zaintzen zeharkakotasuna bermatzeko neurriak hartzea.** Udaletatik garatzen diren politika publikoen planifikazio, exekuzio eta ebaluazioan zaintzen ikuspegia txertatzea, horien demokratizazioan eragiteko.
- Zaintzen **arduradun politiko eta teknikoak** izendatzea udal barruan, zaintzen zeharkakotasuna bermatzeko eta eraldaketa prozesuen garapena ziurtatzea funtzio nagusitzat duten arduradun politiko eta teknikoak sortzeko. Hori ez bada, funtzioa horietara ordu batzuk bideratuko dituzten ordezkari eta langileak izendatu. Ez dadila zaintzen eraldaketa inoren esku gelditu.
- Dirulaguntza, hitzarmen eta kontratazio araudi zein pleguetan **berdintasuna eta justizia soziala bultzatzen dituzten klausulak** txertatzea, eta hauen betetzea ziurtatzeko jarraipena egitea. Horrez gain, kontratazio pleguetan prezioari ematen zaion garrantzia proiektuaren bestelako alderdiekin parekatu, zerbitzuaren kalitatearen kalterako izan ez dadin.



ARRETA JARRI BEHARREKOAK

- *Zein erabakigune aktibatu ditugu? Nork parte hartzen du bertan eta nork ez?*
- *Zeinen beharretara egokitu ditugu parte hartzeko espazioak?*
- *Guztien ahotsak presentzia eta balio parekoa izateko neurriak hartu dira?*
- *Nola komunikatuko ditugu eginasmoak?*



ZAINZA-LANEN BALIO SOZIALA AITORTZEKO SENTSIBILIZATZEA ETA TREBATZEA

ERRONKA

Historikoki, emakumeek nagusiki egin dituzten zaintzak lan gisa aitortu behar dira, eta balio erreala eta ekonomikoa atxiki. Norabide horretan, jendartean indarrean dauden zaintzari buruzko diskurtsoak aldatzeko sentsibilizazio lana egin, zaintza-lanen gaineko ezagutza areagotu eta horiek neurtu eta iruditeri berriak osatu behar dira. Horretarako gaur egungo egoeraz jakitun izan behar da, egungo ereduaren bidegabetasunaren kontzientzia hedatu, eta zaintza-lanak kolektibizatzearen beharraz jabetu.

Jendartearen luze zabalean dauden orokotariko talde zein eragileekin egin daitezke formakuntza edota sentsibilizazio jarduerak. Egungo zaintza erregimenaren oinarriak eta horien antolaketa bidegabea ikusgarri egin behar dira, eta genero desberdinkeriak kausa gisa kokatzen dituen gogoeta marko feminista oinarrian izan. Halaber, eraldaketa prozesurako inspiragarri diren esperientziak ezagutzeak ere gure prozesuak aberastu ditzakete.

PRAKTIKA POSITIBO POSIBLEAK

- Zaintzak harilkatzen dituen **askotariko errealitateen gaineko formazio espezifikoak** egitea, besteak beste, arreta ereduaren gainean, bizitza independentearen gainekoa, zahartzaro berrien inguruan, etxeko langileen egoerari buruzkoa, dolua...
- **Herritar talde zehatzekin lanketa** egitea zaintza-lanen gaineko ardura kolektibizatze aldera (gazteekin eta gizonekin bereziki). Behar-beharrezkoa da gizona zuek zaintza-lanetan dagokien ardura hartzea birbanaketa justuagoa izan dadin. Hainbat jardueren bidez egin daiteke lanketa: hitzaldiak, formazio iraunkorrak, zineforumak, irakurle taldeak, jardura kulturalak,...
- **Erantzunkidetasunaren ideia landu** gizarte-sektore ezberdinetan: familiekin, belaunaldi berriekin, gizona zuekin, komunitatearekin, etab. Lanketa espezifikoak egin xede-taldearen arabera, edo eta orokorrak.
- **Udaleko ordezkari politiko, tekniko eta langileekin trebakuntza saioak egitea.** Udal politiketan zaintza zeharlerro bilakatzeko beharrezkoa da politiken diseinuan dihardutenek zaintzak demokratizatze ikuspegia izatea.
- **Zaintza lan intentsiboetan dabilzanentzako laguntza, orientazioa eta formazioa.** Eduki orokorretatik abiatu daiteke (menpekotasuna, gizarte zerbitzuetako baliabideak, legeria, zaintzaileen zaintza edota laguntza teknikoak) eta arreta berezia jarri zaintza premia intentsiboak artatzen dituztenen errealitate espezifikoetan.



ARRETA JARRI BEHARREKOAK

- *Lortu al dugu gizarteko sektore ezberdinak, bereziki zaintzen ez dutenak, inplikatzea? Zertan?*
- *Trebakuntza beharrak identifikatzeko mekanismoak ezarrita daude?*
- *Zaintza premia duten kolektibo ezberdinei loturiko formazioak eskaintzen dira? Eta zaintzaileak kontuan izan dira?*



3.



ZAINTZA-LANEN BIRBANAKETARAKO KOMUNITATEA AKTIBATZEA ETA ARTIKULATZEA

ERRONKA

Zaintza-lanak era desorekatuan banatzen dira, izan ere, klasearen, generoaren eta arrazaren arabera segregazioa ematen da. Emakumeak dira zaintzaile nagusiaren papera betetzen dutenak familia gehienetan eta ez erakunde publikoek, ez gizonak, ez dute dagokien ardura hartzen. Oro har, molde familista duten politika publikoak garatzen dira, eta nagusitzen diren zerbitzuak legez definituta dagoen menpekotasuna artatzera bideratzen dira, gehienetan familiaren bidez bermatzen direnak.

Administrazio publikoari dagokion berme unibertsalerako ardura kendu gabe, eta gertuko sareek izaten duten erantzukizuna alde batera utzi gabe, zaintza-lanak komunitatean birbanatzea ere gakoa da. Jendarte osora zabaltzeko behar da zaintza lanekiko ardura eta, bereziki, orain arte egoera pribilegiatuan kokatu diren horiek interpelatu behar dira, hots, zaintzen ez dutenak eta, horien baitan, nagusiki gizonezkoak.

Horregatik, eredu publiko-komunitario baterako trantsizioa egin behar da, komunitateak izan daitezkeen zaintza eredu berrietara joateko motore. Horretarako, gobernantza eredu parte hartzaileak garatu behar dira, eta horrekin batera, komunitatearen aktibazioa hauspotu. Komunitatearen aktibazioa, engaiamendua eta parte hartzea lortzea bere horretan toki batzuetan erronka izan daiteke. Halakoetan, erakunde publikoetatik parte hartzea aktibatzeke inbertsio eta bitartekoak ezartzea beharrezkoa da. Era askotako jardura berritzaileak eta inklusiboak izan daitezke herritarren aktibazioaren sustatzaile.

PRAKTIKA POSITIBO POSIBLEAK

○ **Belaunaldien arteko ekintzak eta ekipamenduak sustatzea.**

Adibide bat da belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioena. Gazteak eta adin nagusiko pertsonak bereziki baztertuta geratzen dira, egun indarrean dagoen etxebizitza eskaintzatik: lehenengoak, euren diru-sarrerengatik nagusiki, eta, bigarrenak, zenbait faktoreengatik (irigarritasuna, herrigunetik urrun bizitzea, bakardadea, beharra aldatu direlako...). Hala, bi kolektibo hauek elkar elikatu dezakete eta bizigunea partekatu.

○ **Boluntario sareak osatzea** egunerokotasunarekin lotutako ekintzak aurrera eramateko. Prestutasuna duten herritarrekin zerrendak osatu daitezke egoera zaugarrian dauden beste herritarrei haien eguneroko funtzioetan lagundu ahal izateko, adibidez: paseoak, erosketak edota elkarrizketa. Bolondresak ez dira egokiak zaintza premia intentsiboak dauden kasuetarako, berriazko arreta behar baita kasu horietan.

PRAKTIKA POSITIBO POSIBLEAK

- **Urgentziatzko sareak sortzea** familiatik harago, une jakinetan, zaintza premiei aurre egiteko. Adin txikikoen kasuan, esaterako, lagungarria izan daiteke, norbaitekin utzi ahal izatea tartetxo batean, aurreikusitako gabeko ezustekoren bat suertatzen den egoeretan, eta are gehiago adin txikiko bat baino gehiago dauden familia gurasobakarren kasuan.
- **Auzolanaren kultura hedatzea.** Euskal Herrian historikoki herritarrak antolatu dira komunitatean premiazkoak diren lanak aurrera eraman ahal izateko. Landa eremuan oraindik praktika hau garatzeko joera zertxobait mantentzen da, eta herri mugimenduen eskutik hiriguneetan ere auzolanerako deia egiten da.
- **Gizarte eragileetan zaintzaren ikuspegia txertatzeko hitzarmenak sustatzea.** Gizarte eragile askok udal diru laguntzak jasotzen dituzte eta, zenbaitetan, udalekin hitzarmenak sinatzen dituzte, egitasmo jakinen inguruan. Laguntza edo hitzarmen horietan udalak zaintzaren ikuspegia txertatzea sustatu dezake, elkarrekin alor batean edo bestean komunitateari ekarpena egin diezaioten.
- **Hauskortasuna hautemateko irizpideak zehaztea eta komunitatean lantzea.** Hauskortasunarekiko sentsibilizazioak bakardadea, mendekotasuna, osasun ohitura kaltegarriak, ondoez psikologikoa, hilkortasuna edo beste osasun egoera negatibo batzuk bizitzen egon daitezkeen gizabanakoak identifikatzea ahalbidetzen du. Egoera hori itzulgarria izan daiteke alor anitzetan egindako esku-hartzearekin, eta ingurunearen inplikazioa premiazkoa da zeregin horretan.
- **Komertzio txikia sustatu eta indartzea.** Tokiko merkataritza herri bizien seinale da eta funtsezko lana egiten dute komunitatearen garapenean eta ongizatean. Tokiko ekonomia sustatzen du, herritarren garapen profesionala eta pertsonala sustatzen du eta ongizate emozional, fisikoa eta soziala eskaintzen du. Gainera, konfiantzazko harreman hurbilak garatzen dira, ezinbestean premiazkoak bakardade eta isolamendu egoerak prebenitzeko. Zaintza komunitario prozesuetan eragile gakoa izan ohi dira.
- **Herriko denda eta gune estrategikoekin sarea osatzea.** Komertzio sare indartsua izateaz gain, horien eta bestelako eragileen arteko saretzea sustatzea gakoa da herritarren egoera hauskorrak hauteman eta deribatzeke, esaterako, gizarte zerbitzuetara.
- **Pertsona arteko zaintza zein lurraldearen zaintza bultzatzen duten artikulazio komunitarioak sustatzea.** Adibidez, tokiko basoen aldeko elkarrekin edota ingurumenaren aldekoak, elikadura burujabetzaren aldeko elkarrekin, ondarearen berreskurapenerako elkarrekin, oinezkoen mugikortasuna, etab.
- **Truke bideak indartzea.** Denbora bankuak, esaterako, herritarrek elkarbabeserako sortutako taldeak dira, eta modu antolatu eta doakoan, denbora eta jakintzaren elkartrukea egiten da pertsona artean, jarduerak edo zerbitzuak eskaintzeko. Elkarbitzita kooperatiboa eta autonomia pertsonala garatzea ahalbidetzen duten mekanismo garrantzitsua izan daitezke.



ARRETA JARRI BEHARREKOAK

- *Lortu al dugu gizonak inplikatzea?*
- *Beti zaindu dutenak ari al dira berriz ere zaintza komunitarioan inplikatzen?*
- *Herriko elkarteetan, zaintza ikuspegia aintzat hartzen da? Zein neurri zaintzaile hartzen dira?*
- *Zer egiten da udaletik herriko komertzio sarea indartzeko?*
- *Zaintzaren ikuspegitik ekiten da? Horren kontzientzia bada?*



4.



ZAINZAILEEN BIZI- ETA LAN-BALDINTZAK HOBETZEA

ERRONKA

Argi dago lehen lerroan dauden zaintzaileen ekarpena kontuan hartu behar dela, zaintza-lanak aitortzeko eta dagokien balio sozial zein politikoa emateko. Ezinbestean, gaur egungo zaintza-lanen antolaketa bidegabea salatu behar da, eta, aldi berean, zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetu eta duindu behar dira. Batak bestea dakar. Ezin dugu jarraitu gutxi batzuen zaintza eskubidea bermatzen, zaintzaileen eskubide sozial eta politikoen bizkar; hots, kalitatezko zaintza eman eta jasotzeko, baldintza duinak izan behar dituzte langileek.

Bereziki kolektibo zaugarrietan jarri behar da arreta, etxeetan zaintza zerbitzuak ematen ari diren horiengan, migrazio prozesuak zeharkatuta iristen baitira askotan lanotara. Begirada antiarrazista zein transnazionala garatzea nahitaezkoa da eremu honetan esku-hartzeko.

PRAKTIKA POSITIBO POSIBLEAK

- **Errolda soziala implementatzea.** Egun bizi diren lekuetan erroldatzeko aukerarik ez duten herritarrak daude udalerrietan, haien egoera erregulatu gabe dagoelako, Etxebizitza-bazterkeria pairatzen duten kasu guztietan erroldatzeko aukerak zabaldu behar dira, herritarrek erroldak baimenduriko eskubide eta zerbitzuetara sarbidea izan dezaten.
- Kontratazio pribatuaren bidez mantentzen den **ezkutuko ekonomia formalizatzekeo lanketa egitea.** Etxeko langile ugari esplotazio egoeran daude, modu horretan, lan baldintza duinak izatea ekidin egiten da eta horien zaugarritasuna areagotzen da. Zaintzaileen egoera prekarioarekin amaitzeko neurriak hartzea ezinbestekoa da, hala nola etxeko lana erregularizatuz, lan esplotazioa eta gehiegikeriak hautemateko lan ikuskapenak eginez, pertsona migranteak erregularizatuz edota kalitatezko enplegurako sarbidea hobetzeko formakuntzak eskainiz.
- **Erabiltzaile eta langileen arteko kooperatibak sortzea.** Ekintzailletza sozialean oinarrituriko kooperatiba integralak pertsona bazkide langileek eta erabiltzaileen edota kolaboratzaileen arteko artikulazioaren emaitza dira. Hala, langileek haien lan baldintzak kontrolatu eta duinak izateko antolatuta daude. Aldi berean, pertsonen arretarako premiazkoa diren kalitatezko zerbitzua kontratatzekeo aukera dute erabiltzaileek. Gainera, entitate publiko edo erakunde sozialek kolaboratzaile gisa jardutekeo aukera dute, zaintzen kolektibizaziorako estrategia garatu bidean.
- **Zaintzaileei laguntzeko zerbitzu publikoak handitzea.** Udal zerbitzuetatik zaintzaileen bizi baldintzak hobetzeko asko eta asko izan

PRAKTIKA POSITIBO POSIBLEAK

daitezke jardunbide posibleak, besteak beste, aholkularitza juridikoa, ikasketen homologazioa lortu ahal izateko laguntza bideratzea, egoerak erregularizatzekeko laguntza eta aukerak zabaltzea.

- **Zaintzaileentzako guneak eskaintzea.** Zaintzaileen arteko saretzea eta antolakuntza bide garrantzitsuak dira, haien egoera hobetzea aldera zailtasunak edo bidegabekeriak identifikatu eta horien aurreak ekinbideak abiarazi edo aldarrikatzeko.
- **Lan-eskubideen gainean alfabetatzea.** Gehiegikeriak nagusitzen diren arlo honetan, lan eskubideen inguruan informatuta egoteak gehiegikeria horiek saihesten lagundu dezake. Horretarako, eskubideen inguruan informatzeko saioak eskaini daitezke eta horietan dagoen parte hartzea elkarren artean saretzeko baliatu.
- Udalerrian antolatzen diren ekintzetan **zaintzaileen parte hartzea indartzea.** Parte hartze soziopolitikoak inklusiorako gakoetako bat da. Parte hartzea sustatzeko guneak mota askotakoak dira, esaterako, jaietako programa osatzerakoan zaintzaileek parte hartzea, herriko kultura agendan zaintzaileen intereseko kontuak sartzera, jarduera soziokulturalak eskaintzean ordutegietan aintzat hartzea edota kirol instalazioak erabiltzeko ordutegi malguak eskaintzea.
- **Bitartekaritza laborala, juridikoa eta laguntza zerbitzu publikoa sortzea** familia eta zaintza lanetan dauden profesionalen zuzendua, zaintza eta etxeko lan baldintzak hobetzeko.
- Herrira iritsi berri direnentzat **harrera planak sortzea.** Aniztasuna kulturartekotasunaren ikuspegitik garatzeko erredua eta genero ikuspegia oinarrian izatea premiazkoa da, prozesu migratorioak bizi izan dituzten pertsonen eskubideak eta bizi duinak bermatu eta elkartrukerako bideak zabaltzeko.
- **Etxebizitza kooperatiboak sustatzea ezberdinen arteko bizikidetzaren indartzeko eta zaintza-lanak demokratizatzekeko.** Formulak era askotakoak izan daitezke, besteak beste, etxebizitza publiko-komunitarioak edota administrazio publikoak edo herritar taldeek sustaturiko erabilera lagapenezko etxebizitza kooperatibak. Bestalde, erabiltzaile diren pertsonen aurretik izan ditzaketen etxebizitza pribatuak administrazio publikoen esku utzi ditzakete alokairu sozialera bideratzeko. Gainera etxebizitzatik harago, zaintza komunitarioa sustatzeko prozesuak garatu daitezke pertsona artean.



ARRETA JARRI BEHARREKOAK

- *Hedapen bideetan hizkuntza ulergarria erabiltzen da?*
- *Zer egin dezakegu zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetzeko? Behar nagusiak ezagutu eta asebetetzeko neurriak hartu.*
- *Zaintzaile profil anitzen errealitatea ezagutzen da? Zein zerbitzu eta baliabide zuzentzen zaio profil bakoitzari?*
- *Nola ekidin botere harremanak?*
- *Ikuspegi intersektionala aplikatzen da lan prozeduretan?*

5.



ZERBITZUAK HEDATU ETA ARRETA EREDUA PERTSONALIZATZEA

ERRONKA

Berariazko zaintza sistemarik ez dagoenez, zaintza premiak artatzen dituzten baliabide eta erakundeen arteko koordinazio ahul dago. Zerbitzuetan ikuspegi asistentzialista nagusitzen da, eta mendekotasuna eta zaintza beharrak salbuespenak izango balira artatzen dira. Izan ere, zerbitzuen kudeaketa lehenesten da, eta askotan ez dago baliabide ekonomiko edota humano nahikorik komunitatearekin harilkatzeak jarraitzeko eta ikuspegi erlazionalagoa bermatzeko, ezta erabiltzaileen behar eta desioak erdigunean jartzeko ere. Horregatik, arretaren eredua aldatu behar da, adin-eriarik izan ez dezan, eta pertsoneri agentzia zein erabakitzekeo eskubiderik ez diezaieten kendu. Horren aurrean, bizi ibilbideak, harremanak eta tokiko errealitatearekin loturak mantentzera bideratutako arreta eta zerbitzu ereduak lehenetsi behar dira.

Zaintza-lanen feminizazioa gutxitu eta horien birbanaketa orekatzeko beharrezkoa da erakunde publikoek erantzukizun handiena hartzea. Horren emaitza izango da kalitatezko zaintza eskainiko duten zerbitzu publikoak gehitzea, hobetzea, eta dibertsifikatzea. Horretarako, zerbitzu eta baliabideetarako inbertsioa handitu behar da. Gainera, arreta zerbitzu guztien arteko koordinazio gune egonkorrak eratzea ezinbestekoa da. Era berean, zerbitzuak malgutu behar dira, dibertsifikatu eta kasuan kasuko behar, gogo eta harreman sareetara egokitu.

Erronka nagusia izango da bizi ziklo guztian izan daitezkeen zaintza premiak aintzat hartuko dituen zaintza sistema izatea, mendekotasunari arreta egitetik harago jardunez. Horretarako, pertsona erdigunean izango den eredu bateranzko trantsizioa hauspotzen jarraitu behar da, non laguntza behar duen edozeinek beste guztien maila eta eskubide berdinekin bizi ahal izango duen.

PRAKTIKA POSITIBO POSIBLEAK

- **Pertsonen zaintzan esku-hartzen duten zerbitzuen eta baliabideen koordinazio gune egonkorrak sortzea.** Berariazko zaintza sistemarik ezean, premiazkoa da zaintzaren inguruko koordinazio guneak sortzea, esaterako, osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen artean. Era berean, zerbitzu kudeatzailea, erabiltzailea eta zaintzaileen arteko lan dinamikak garatzea ere interesgarria da.
- **Autonomia sustatzen duten zerbitzu eta baliabideak garatzea.** Ingurunea egokitzea da gakoetako bat bizi independenteak bultzatzeko. Ahalik eta seguruenan izan behar du, eta, aldi berean, independentzia erraztu behar du. Komenigarria da arriskua izan daitezkeen eta autonomia pertsonala zaildu dezaketen ingurumen-oztopoak berrikustea eta ezabatzea.

PRAKTIKA POSITIBO POSIBLEAK

Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren etxebizitza edo ibilgailua egokitzeko laguntza tekniko, ekonomiko eta materiala eskaintzea oinarritzkoa da. Bestetik, arreta ereduari dagokionez, autonomia pertsonala sustatzen duen zaintza erudian oinarritzeko arretaz behatu behar dira denborak eta langileen baldintzak.

- **Esku-hartzeak pertsonen bizi planaren arabekoak izatea eta osotasunean eragitea.** Pertsonen bizi baldintzak hobetzea helburu duen eta egunerokoa egituratzen duten ekintza multzoa jasotzen da planean. Garrantzitsua da plana osatzerakoan, baita honen berrikuspen eta ebaluazioan pertsonak eta bere babes sareak parte hartzea ere. Hala, bere bizitzako etorkizunaren jabe dela bermatu ahalko du.
- **Garraio publikoa eta irisgarria sustatu udalerrian barna.** Modu independentean eta librean mugitzeko herritar ororen eskubidea bermatzen du garraio bide irisgarriak. Bizi sozialeko jardueretan parte hartzeko ezinbestekoa da garraioak erabat egokitzea desgaitasun edo mendekotasunen bat duten pertsonen egoeretara. Horretarako estrategia batzuk honako hauek izan daitezke: geltokietarako sarbideak aztertzea eta egokitzea (ibilgailuetakoak eta ibilbide osokoak), garraio barneko ekipamendu eta guneak egokitzea edo aplikazioen bitartez informazioa eskuragarri jartzea.
- **Izapidetzak egiteko laguntza eskaini eta irakurketa erraza aplikatzea.** Zaintza premiak dituzten horien eta beraien zaintzaz arduratzen direnek maiz salatzen dute ibilbide burokratikoaren trabak, eta eskubideak gauzatzeko oztopoa da. Tramitazioak egiteko aholkularitza eskaintzea eta dokumentazioa irakurketa errazaren printzipioen baitan egitea onuragarria da.



ARRETA JARRI BEHARREKOAK

- *Pertsonen nahiak jasotzeko badago prozedura eta tresnarik?*
- *Adinkeria, arrazakeria edo bestelako zapalkuntzarik eragiten dute zerbitzuek?*
- *Autonomia eta prebentzioa sustatzen dira zerbitzuetatik?*
- *Zerbitzu publikoetan unibertsaltasuna bermatzen da?*
- *Pertsonen zaintza beharrak asebeteta daude?*

5.3 Jarraipena eta balorazioa

ATAL HONETAN, ZAINTZA-LANAK ERALDATZEKO PROZESUA EDO PLANAREN JARRAIPENA EGITEKO KONTUAN IZAN BEHAR DIREN ALDERDIAK ZEHAZTEN DIRA. HALABER, PROZESUAREN EMAITZAK BALORATZEKO ETA EGINDAKO BIDEAK ZAINTZA-LANEN DEMOKRATIZAZIOAN IZAN DUEN INPAKTUA NEURTZEKO ADIERAZLEAK ERE PROPOSATZEN DIRA.

Prozesuen erronkak kontutan hartuta, etengabeko ebaluaziorako bitartekoak sortu beharko dira, eta egokitzapenak egin, balorazio horren arabera aurrera zertan egin den eta oraindik lortzeke dagoena kontuan hartuta.

Adierazle motak

Zaintza-lanen antolaketaren inguruko balorazioa osatzeko ezagutu eta aztertu behar diren eremuak honako hauek dira:

1. **Prozesua ebaluatzeak (bitartean)**
2. **Prozesuaren emaitza ebaluatzeak (ondoren)**
3. **Zaintza-lanen antolaketan izandako inpaktua neurtzeak (aurrera begira)**

Jarraian datorren taulako lehenengo zutabean, ebaluatu beharreko alderdiak jasotzen dira, eta, bigarrenean, adierazle posibleen adibideak. Emaitza- eta prozesu-adierazleak jarraipenerako erabiliko ditugu, eta, ondoren, egindakoa ebaluatzeko. Inpaktu-adierazleak baliagarriak izango zaizkigu ebaluazioan, planak edo prozesuak ingurunean dituen ondorioak neurtzeko.



Prozesuaren eta gauzatutakoaren ebaluaketa

Ebaluatu beharreko alderdiak	Adierazleen adibideak
Parte hartze maila eta nolakotasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuaren baitan egindako bileretan parte hartu duten kideen kopurua • Prozesuan zehar antolatutako ekimenetan parte hartu duten kideen kopurua • Parte hartu duten kideen profilak, generoaren, jatorriaren eta adinaren arabera (bestelako aldagai interesgarriak bada, horien araberako balorazioa) • Prozesuan parte hartu duten pertsonen feminizazio tasa (%) • Prozesuan parte hartu duten eragileen kopurua, izenak eta jarduera • Prozesuan parte hartu duten udal arloak
Barne-komunikazioa eta sistematizazio-maila	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat deialdi eta nola egin diren • Erabilitako hedapen eta sistematizazio tresnen egokitasun maila, helburuen arabera • Ekoizitako informazioaren euskarri idatziak: txostenak eta aktak
Sortutako egiturak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat egitura berri jarri diren martxan • Sortutako egitura horien garapen maila
Sortutako zailtasunak eta intzidentziak	<ul style="list-style-type: none"> • Zailtasun eta intzidentzien kopurua • Zailtasunak eta intzidentziak, eta horiei emandako konponbideen arteko elkarrekikotasun-maila.
Egokitzapenak	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuan zehar hautemandako beharrak (informatiboak, trebakuntza, hedapena, zerbitzu osagarriak...) eta horiei emandako erantzunak
Hedapen maila	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuan proposaturiko jardueretarako euskarri komunikatiboak • Erabilitako euskarri komunikatiboen balorazioa (kualitatiboa)
Erabilitako baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesua garatu ahal izateko erabilitako baliabide ekonomikoen kostu totala • Prozesua garatzeko erabilitako baliabide material eta azpiegitura kopurua eta nolakotasuna.

Emaizten ebaluaketa

Ebaluatu beharreko alderdiak	Adierazleen adibideak
Prozesuaren helburuak eta horien betetze maila	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreikusitako ekintzak garatu ondoren lortutako helburu espezifikoek kopurua, jarduera-ildoen arabera
Prozesuan aurreikusi gabeko emaitzak	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreikusi gabeko ekintzen kopurua eta tipologia, eta ekintza horiek burutzeko arrazoiak (jarraipenaren ondorioz, urgentzien ondorioz, etab.) • Prozesuaren garapenaren ondorioz sortutako aurreikusi gabeko emaitzak
Pertsona onuradunak	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzatutako ekintzen onuradunen kopurua, generoa eta bestelako aldagaien arabera, jarduera-ildo bakoitzeko neurri/ekintza ezberdinetan • Bakardadearen inguruko pertzepzioa • Osasun egoerari buruzko pertzepzioa
Zaintza-langileen bizi baldintzak hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> • PCEFE feminizazio tasa (%) • ELZ langileen feminizazio tasa (%) • Udalaz gaindiko zerbitzuetako langileen feminizazio tasa (%) • ELZko lan hitzarmenean egindako hobekuntzen kopurua • Zaintza premiei erantzuteko sorturiko zerbitzu osagarri berrien kopurua • Zerbitzuen erabiltzaile kopurua, ELZko langile bakoitzeko • Udal eskumeneko zerbitzu bakoitzeko kudeaketa azpikontratatu den zerbitzuen kopurua • Zaintzaren ikuspegia txertatu duten udal sailen kopurua • Zaintza-lanak egiten dabilozan langileen ongizate fisiko eta mentala
Zaintza premien hornidura hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> • Zahar mendekotasun indizearekiko mendekotasun aitortuen kopurua • Mendekotasuna aitortu duten gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen kopurua, eta mendekotasuna aitortzeko eskaria egin duten herritarren kopurua • Mendekotasun-balorazioa egiteko itxaron zerrendan dauden herritarren kopurua

Eraginaren ebaluaketa

Ebaluatu beharreko alderdiak	Adierazleen adibideak
<p>Zaintza-lanen demokratizazioan aurrera egitea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Desfeminizazioa • Desfamiliarizazioa • Publikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Diagnostikoan jasotako adierazle horien eraldaketa (%)
<p>Zaintzen demokratizazioarako konpromisoen formalizatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde publikoek zaintzen demokratizazioarako hartutako konpromiso formalen kopurua eta zertarako • Herriko ezein eragilek zaintzen demokratizazioarako hartutako konpromiso formalen kopurua eta zertarako



6.

Eranskinak

I. Egoeraren azterketa osatzeko informazioaren erregistrorako fitxak:

- Datu soziodemografikoak
- Mendekotasun-egoerak
- Zaintza zerbitzuetako erabiltzaileak
- Zaintzari loturiko zerbitzuak eta horien erabiltzaileak



Datu soziodemografikoak

	Maiztasuna			
	Emakumeak	%	Gizonak	%
Biztanleriaren datuak, generoa, adina eta jatorriaren arabera				
Biztanleriaren zahartze indizea				
Biztanleriaren gazte indizea				
Biztanleriaren mendekotasun indizeak (orokorra/gazte/zahar)				
Pobrezia arriskua eta pobrezia larria egoeran dagoen biztanleria, generoaren arabera				
Euskararen ezagutza				
Bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako biztanleen kopuru gordina				

Mendekotasun-egoerak

	Maiztasuna			
	Emakumeak	%	Gizonak	%
Mendekotasun egoeran dauden pertsonen kopuru gordina				
Mendekotasuna baloratzeko eskaera kopuruak				
Mendekotasuna baloratzeko itxaron zerrendan dauden herritarren kopurua				
Mendekotasun egoeran dauden pertsonen adina, batez-bestekoa				

Zaintza zerbitzuetako erabiltzaileak

	Maiztasuna			
	Emakumeak	%	Gizonak	%
Etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileak, generoaren arabera.				
Teleasistentzia zerbitzuko erabiltzaileak, generoaren arabera.				
Autonomia sustatzeko eta mendetasuna prebenitzeko programako erabiltzaileak, generoaren arabera.				
Eguneko zentroko erabiltzaileak, generoaren arabera.				
Zahar egoitzako erabiltzaileak, generoaren arabera.				
Zerbitzuetan dauden itxaron zerrendetako biztanleen kopurua				
Zerbitzuetan dauden langileak, generoa eta jatorriaren arabera				
Prestazioa ekonomikoa jasotzen duten erabiltzaile kopurua:				
• Familia-inguruneko zainketetarako prestazio ekonomikoa (PECE)				
• Zaintzaile profesionala eta/edo enpresa kontratatze prestazio ekonomikoa (PECP)				
• Asistentzia pertsonala kontratatze prestazio ekonomikoa (PEAP)				
• Familia-inguruneko zainketetarako prestazio ekonomikoaren onuraduna, generoaren arabera (PECE) (zaintzaile nagusia)				

Zaintzari loturiko zerbitzuak eta horien erabiltzaileak

	Maiztasuna			
	Emakumeak	%	Gizonak	%
ZERBITZUA:				
Ospitaleko akonpainamendua				
Etxeko hornidura eta zerbitzu espezializatuak				
Garraio egokituaren zerbitzua				
Landa guneko mugikortasuna errazteko garraioa				
Etxebizitza zaharren egokitzapena				
Esperientzia eskolak				
Oroimen tailerrak				
Jatordu bateratuak				
Belaunaldi arteko ekintzak				
Zaintzaileen arretarako laguntza psikosoziala				
Adinekoei begirako eskaintza soziokulturala				
Jubiloteka				
Bakardade egoeran dauden akonpainamendu zerbitzuak				
Zaintzaile profesionaleri begirako formazioa				
Etxeko langileei begirako arreta zerbitzuak				
Adinekoei begirako ibilbide egokituak				
Haur eta gazteei begirako ibilbide egokituak				
Ludoteka				
Ekimen konkretuetarako haur-zaintza zerbitzua				
Haurreskola				
Eskola ordutegien zabalpena, kontziliaziorako				
Herriko barrera arkitektonikoak identifikatzea				
Herriko puntu kritikoak identifikatzea				
Denbora bankua				
Etxebizitza komunitarioak				
Auzolan deialdiak				

Zaintzari loturiko zerbitzuak eta horien erabiltzaileak

	Maiztasuna			
	Emakumeak	%	Gizonak	%
Zaintza-sareak				
Bolondres-sareak				
Baratza komunitarioak				
Ingurunea zaintzeko egitasmoa				
Etxeko langileen kooperatiba				



II. Esparru arauemailea

NAZIOARTEA

Zaintzen aldeko Aliantza Globala

- Zaintzan gertatzen diren bereizkeriei buruzko datuak eta ikerketak sortu behar dira.
- Gobernuek zainketa-sistema eta zainketa-politika unibertsalak, progresiboak eta integralak garatu behar dituzte.
- Gobernuek eta beste sektore erantzunkide batzuek modu iraunkorren inbertitu behar dute zaintza politika horietan, eta eremu fiskala zabaldu behar dute.
- Zaintzako langileek lan-baldintza duinak eta gizarte-babeseakoak izan behar dituzte, bai eta negoziazio kolektiborako eta antolaketa-rako eskubidea gauzatzeko bermeak ere.
- Gizarte zibilak (zaintzaileen eta zainketa-hartzaileen erakundeak barne), aktiboki parte hartu behar du zainketa-politiken garapenean.
- Desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak, gaixotasunak dituzten pertsonak, haurrak eta nerabeak, eskubide-subjektu eta aldaketa-eragile gisa aitortu behar dira zainketa-politikan, eta ez mendeko edo laguntza-hartzaile soil gisa.
- Tokiko politikak garatu behar dira, eta ikuspegi intersektzionala hartu behar da kontuan.

Europako Zaintza Estrategia

Estrategia honek, **hiru helburu nagusi** azpimarratzen ditu:

- 1.** Pertsona guztiek zerbitzu egokiak eskuratu ahal izatea bermatzea, eta zaintza-beharrak pobrezia eraman ez dezaten bermatzea, bai eta sarbidean eta osasun-emaitzetan dauden bereizkeriei aurre egitea ere.
- 2.** Kalitatea sustatzea eta laguntza behar eta lehenasun aldakorretara egokitzea, kalitate-arauak ezarriz eta osasun-profesionalen, pazienteen eta asistentziaren onuradunen erantzukizuna indartuz.
- 3.** Arrazoizko zaintza jasangarriak bermatzea: bizimodu osasuntsuak eta aktiboak sustatzea; giza baliabide onak sektorearentzat; baliabideen erabilera arrazionala, bereziki erabiltzaileentzako eta hornitzaileentzako pizgarri egokien bidez; gobernantza ona; eta asistentzia-sistemen eta -erakundeen arteko koordinazioa.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen 5 R Markoa

Nazioarteko lanaren erakundeak, bere ekinbideen oinarri gisa, 5 R-en markoa garatu du. Hauexek dira proposatutako ildoak:

- 1. Aitortu (Reconocer):** Zaintza-lanak, formalak zein informalak, balioan jarri behar dira instituzioetan eta gizartean.
- 2. Gutxitu (Reducir):** Zaintza familiarren zama gutxitu behar da, eta arreta publikoa sustatu.
- 3. Saritu (Recompensar):** Bizi- eta lan-baldintza onek ezaugarritu behar dituzte zaintza-lanak
- 4. Birbanatu (Redistribuir):** Sektore publikoak lidergoa eta ardura hartu behar ditu, jendarteko beste sektore batzuekin batera, bereziki inizatiba soziala dutenekin. Gizonek ardura hartu behar dute.
- 5. Ordezkatu (Representar):** Zaintza premiak dituztenek zein zaintzaileek ordezkaritza behar dute orotariko prozesu eraldatzaileetan.

«Gure mundua eraldatu: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda» Nazio Batuen programa

Genero-berdintasuna 5. Garapen Jasangarrirako Helburuan (GJH) honela dago jasota:

5.4. helburua: «Ordaindu gabeko zaintza-lanak eta etxeko lanak aitortzea eta baloratzea, alde batetik, zerbitzu publikoen, azpiegituren eta babes sozialeko politiken bidez, eta, bestetik, etxean eta familian ardura banaketa sustatuz, herrialde bakoitzeko egoera kontuan izanda».

Lanaren 189. hitzarmena, etxeko langileentzako lan duinari buruzkoa, (2011). Espainiak 2022ko apirilean berretsia

Bertan, honako hau adierazten da: «Kontuan hartu da etxeko lanak gutxietsiak eta ikusezinak izaten jarraitzen dutela, batez ere emakumeek eta neskatoek egiten dituztela (horietako asko migratzaileak edo komunitate behartsuetako kideak) eta, enplegu- zein lan-baldintzei dago-kenez, bereziki kalteberak direla diskriminazioarekiko nahiz giza eskubideen beste abusu batzuekiko...».

Hitzarmenak enplegu hori duintzeko neurriak proposatzen ditu, baina okupazio nagusia eta lanaldi osokoa denean soilik. Ez du zaintza informala edo noizbehinkakoa babesten.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Euskadiren 2030 Estrategia

III. ARDATZA. GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA

Bitzita elkarrekin nola antolatu hausnartzean datza, eta lau helburu estrategiko eta hamar lan-ildotan egituratzen da:

- GA7. Demokrazia zaintzailearen eraikuntzarantz aurrera egitea.
 - » 15. Ildoa. Zainketen etika, politika eta praktika.
 - » 16. Ildoa. Erantzunkidetasuna zainketetan.
- GA8. Erakundeen kulturaren eta praktikan berdintasuna gauzatzea eta ezartzea.
 - » 17. Ildoa. Enpresak eta erakundeak.
 - » 18. Ildoa. Kultura, kirola eta hedabideak.
- GA9. Berdintasuna euskadi berreskuratzeko eta modernizatzeko prozesuaren parte dela bermatzea.
 - » 19. Ildoa. Trantsizio ekologikoa eta justizia klimatikoa.
 - » 20. Ildoa. Zientzia eta teknologia.
 - » 21. Ildoa. Gizarte- eta lurralde-koheretza.
- GA10. Gizarte-antolaketa eredu bidezko, berdintasunezko eta jasangarri baten garapenerako konpromisoa indartzea eta zabaltzea.
 - » 22. Ildoa. Hezkidetzak.
 - » 23. Ildoa. Gizonen berdintasunarekin duten konpromisoa.
 - » 24. Ildoa. Herritarrak gizarte-eraldaketaren protagonista.

2023ko martxoaren 16ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren legea

Bultzada ematen dio lortu nahi den zainketa-eredu berriari, eta euskal botere publikoari interpelatzen die hainbat aginduren bidez:

- Zainketekiko erantzunkidetasuna bultzatu nahi du, batez ere gizonen etxeko lanarekin eta ordaindu gabeko zaintzarekin duten inplikazioaren bidez (51. artikulua).
- Neurriak hartu beharra ezartzen du, antolakuntza-aldatzeko eta kultura eta praktika enpresarialaren aldaketa errazteko; adibidez, guraso bientzat baimen berdin eta besterenezinak bermatzea haien langileei, seme-alaben jaiotza-, adopzio- edo harrera-kasuetan (52. artikulua).
- Pertsona guztiek zainketa duinak -modu eraginkor eta arduratsuan kudeatuta- jasotzeko eskubide indibidual eta besterenezina aitortzen du, zainketen hornidura unibertsalaren eta publikoaren bidez (53. artikulua).

